

## Kultura

Sermond's taldeak bosgarren diskoa kaleratu berri du. Ekainaren 16an Elorrioko Arriolan eskainiko duten kontzertuan aurkeztuko dute. > 15



## Berton Bertokoa dinamikak jaia antolatu du biharko, Abadiñon

Durungaldeko 9 eskola publikotako gurasoek osatutako Berton Bertokoa dinamikak egun osoko jaia antolatuko du, bihar, Abadiñon. Seme-alabek eskolako jantokietan zer eta zelan jaten duten erabakitze eskubidea izatea aldarrikatzen dute. Jantokietan bertoko eta sasoiko produktuekin osatutako kalitatezko elikadura eskaintzea posible dela diote. > 2

*“Gazteak dira etorkizuna; beraz, garrantzitsua da harrobia sendotzea”*

Jone Aizpurua eta Serafin Bereziartua Mugarra Triatloi Taldeko kideak. > 19



## Ibaizabaletik Errekaleorrera

Ibaizabal inguruetan sortua, Gasteizko Errekaleor auzo okupatua bizi da gaur egun Hilargi Macho durangarra. Sistematik aske egongo den bizimodu bat garatzen saiatzen dira 150 bat lagun. Argia kendu diete, baina babes soziala lortu dute. > 3



HHI

DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

**CEPA DURANGO HHI**  
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6  
DURANGO



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsiterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ**  
946 814 253

[www.opadurango.hezkuntza.net](http://www.opadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenerdik ostegunera: 09:00-13:00/  
16:00-19:00 · Ostiraletan: 09:00-13:00

### Durungaldea > 4

'Ireki' kanpainan 7.000 sinadura batu dituzte Durangaldean

### Durango > 5

Herritarrei egindako inkestak eztabaida politikoa sortu du

### Zaldibar > 6

Uztailean zabaldu gura du udalak ospitaleko berdegunea

### Mañaria > 8

Hontza Museoak 30. urteurrena ospatu du, gela berria zabaldua



## Herririk herri



Ikasleak Larrabetzuko negutegian, esperimentatzen.



Markinako Bekobenta eskolako jantokia.

# Larrabetzu eta Markinako eskolak, aitzindari jantokien elikaduran

2008tik Larrabetzuko gurasoek diru-laguntzarik barik kudeatzen dute jantokia

**DURANGALDEA** J. Guenetxea Seme-alabek ikastetxeko jantokian zer eta zelan jaten duten erabakitzea. Horixe da Bertoneko dinamiko kideek zapatuan Abadiñon aldarrikatuko dutena. Durangaldeko bederatzi eskola publikotan bertako eta sasoiko produktuak ematea gura dute, eta horiek jantokian prestatzea ere bai.

Bide horretan, Larrabetzuko eskola aitzindaria da. 1978tik, eskola sortu zenetik, guraso

elkartek kudeatzen zituen jantokiko begiraleak eta lehen-gaiaren erosketa. 2000. urtean, lege aldaketagaz, eskola jantokiak catering enpresen esku gelditu ziren. 2008an, Larrabetzuko eskolak uki egin zion planteamendu horri. Horrela, jantokiaren ardura osoa guraso elkartearen esku gelditu zen, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik barik. "Catering enpresa bat hartzerakoan, kontrol falta izango genuen. Elikagaien

kalitatearen inguruan kezka genuen", dio Ekaitz Barrenetxea guraso elkarteko kideak. Gaur egun dituzten jantokiko kuota Jaurlaritzako delegaritzak markatzen dituenak dira: 4,6 euro ume eta menuko. Egunero, 240 menu banatzen dituzte. Produktu guztiak herrian erosten dituzte, lehen sektoreko baserritarrei edo bertako dendariei. "Jantoki zerbitzuaren gastu orokorren %80 herrira bueltatzen da", azaldu du Barrenetxeak. Bertone

Bertokoaren eta halako dinamiken garrantzia azpimarratu du Larrabetzuko gurasoak: "Esperantza handiagaz ikusten ari gara beste eskola batzuetan mugitzen ari direla. Gure etorkizuna ziurtatzeko era bat dela ikusten dugu. Denon indarrak batu behar ditugu".

### Markinako esperientzia

Markinako Bekobenta LHI eta Markina DHI ikastetxeek esperientzia pilotu bat jarri zuten martxan iaz, Jaurlaritzagaz batera. Jaurlaritzak sukaldariak jartzen ditu, eta guraso elkar-teak elikagaiak eta begiraleen kontratazioa hartzen ditu bere gain. Erosketa egiterakoan, hurbileko elikagaiak lehenesten dituzte, eta sasoian sakoikoak.

Zuriñe Egia guraso elkarteko kidearen esanetan, proiektua martxan jarri eta hiru hilabetera ebaluazio bat egin zuten, eta %95ek oso gustura zegoela adierazi zuten. Egiak dioenez, "eguneko jatordurik garrantzitsuena eskolan egiten dute umeek, eta kalitatezko janaria jaten dabiltzala kontrolatu ahal izatea inportantea da".

### Elikatu poza

Durangoko Kurutzia ikastolak, guraso talde batek bultzatuta, hausnarketa egin du jantokiko elikaduraren inguruan. Elikatu poza proiektuaren barruan, sasoiko eta bertoko produktuak sartu dituzte. Gainera, elikagai ekologikoen aldeko apustua egin dute.

## Bertako produktuen azoka egingo dute biharko jaian



Bederatzi guraso elkartek osatzen dute Bertoneko dinamika.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, artzain-txakurren erakustaldia, puzgarriak, herri bazkaria... Egitarau oparoa antolatu dute Bertoneko dinamiko kideek biharko, Abadiñon. Nabarmenezkoa da, euren filosofiari jarraituta, bertako ekoizleen azoka egongo dela.

Eskola publikoetako jantokien gestioa arautzen duen legea aldatzea da mugimenduen azken helburua. Durango - Landako eta Zabalarra-, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio eta Zaldibarko guraso elkartek daude batuta.

### EGITARAUA

**GUNE BERDEA**  
FRONTOI INGURUA  
11:00 Hasiera.  
11:30-13:30 Puzgarriak eta jumping.  
14:30 Herri bazkaria.  
17:00 Argazkilaritza tailerra.

**GUNE MOREA**  
ESKOLA  
11:30-13:30 Adin guztietarako tailerrak.  
12:30 Funky eta street dance.  
16:00 Zezentxoak.  
17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

**GUNE URDINA**  
APARKALEKUA  
13:00 Bertako ekoizleen azoka.

**GUNE HORIA**  
LANDA  
12:30 Artzain-txakurren erakustaldia.

**GUNE GORRIA**  
UDALETXEA  
Txosna egun osoan  
18:00 Dj Bull.

**INFORMAZIO GUNEA**  
UDALETXEKO PLAZA  
12:30 Dinamikaren aurkezpena.  
18:00 Dinamikaren aurkezpena.  
19:00 Otzararen zozketa.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko ekainaren 9a  
14. urtea - 680. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea  
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txinturreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



**DURANGALDEA** M. Onaindia  
2013an Gasteizko Errekaleor auzoko etxe bat okupatu zuten 10 ikaslek, etxebizitza arazoari irtenbide bat emateko asmoz. Denboragaz, auzoa bera okupatu dute; dagoeneko 150 lagunetik gora bizi dira han. Hilargi Macho Egiarte 21 urteko durangarra da eurretako bat. Sistemari alternatiba bat topatu gura diote, eta bizia antolatzeko proiektu oso bat garatzen dabilta. Azken egunetan lau haizetara zabaldu da, udalaren aginduz argia kendu diotenean. XX. mende erdialdean sortutako langile auzoa hustu, bota, eta berri bat sortzeko plana onartu zuen udalak 2000n. Orain, herri-ortuak sortu gura dituela dio.

**Noiz hasi zinen Errekaleorren bizitzen? Zerk bultzatu zintuen erabaki hori hartzera?**

2015eko irailean etorri nintzen hona bizitzera. Gasteizen Lehen Hezkuntzako karrera egin behar nuen, eta ezagun bat hona etortzekoa zen. Proiektua entzuna nuen, eta gogoia neukan parte hartzeko. Aukera ona iruditu zitzaidan teoriar irakurritakoa praktikan ipintzeko.

**Zelan eragin du zure bizitzan?**

Nire bizimodua pilo bat aldatu da. Aurretik, ikasteko tarte bat nuen, beste bat lagunekin egoteko, edo militantziarako. Baina hemen guztia nahasten da. Nire bizimodua zoramen bat da une honetan, baina etenik bako ikasketa prozesu bat ere bai. Neure burua ezagutzeko balio izan dit. Lehen, neure buruari muga batzuk ezartzen nizkion, gizarteak baldintzatutakoak zirenak. Asko emakumearen rolek lotuak; esaterako, lehen neure burua ez nuen kapaz ikusten lan fisikoak egiteko. Ez nuen imajinatzen leiho bat egin nezakeenik. Gainera, emakume etxe batean bizi naiz, eta ja-

## “Errekaleorren, nire bizimodua etenik bako ikasketa prozesu bat da”

Gasteizko Errekaleor auzo okupatuko bizilagunetako bat da Hilargi Macho durangar gaztea



bekuntza pertsonal eta kolektiboa lantzeko aukera eduki dut.

**Suposatzen dut guztiok duzuela arduraren bat.**

Bai, hona lanera gatoz. Erabaki eta ildo guztiak bilera orokorrean zehazten dira, eta eguneroan lan-taldea funtzionatzen dugu: ekonomia, kultura, harremanak, azpiegitura, ortua, okidengia, inprenta, komunikazioa, autodefentsa, energia, hondakinen kudeaketa, kide berrien harrera... Ni harremanen taldean nago, horizontaltasuna, partaidetza eta harreman sanoak sustatzeko dena. Azpiegituran ere banabil.

**Errekaleor ez da etxe hutsen okupazio soil bat, ezta?**

Sistemari alternatiba bat ematea da gure asmoa. Aniztasun

“**Kultura askearen alde Gaztetxea, Gizarte Etxea, pilotalekua eta zinema dauzkagu**”

handia dugu eta autogestioa da ardatza. Elikaduran burujabe izateko bidean, ortua eta okidengia dauzkagu, eta oiloak ere izan ditugu orain arte. Kultura askearen alde Gaztetxea, Gizarte Etxea, pilotalekua eta zinema dauzkagu. Kontzertuak, berbaldiak eta klaseak antolatzen ditugu. Feminismoan lanketa bat egiten da; RKmeak deitzen den emakume talde bat dago. Kanpoko jendea ere egon arren, auzo euskalduna da, eta euskara

klaseak ematen ditugu. Burujabetza energetikorako, *crowdfunding* bat ipini dugu martxan, 550 eguzki-plaka erosteko balio duena. Pilotalekuan ipini eta energia etxeetara bidaliko da, baina ahalik eta gutxien, kontsumo koherenteago bat izateko. Elektrizitate gehien kontsumitzen duten gauzak batera egiten saiatuko gara. Auzo berriztagarri bat izatea da gure asmoa.

**Hain zuzen, argia kendu zizueten duela aste pare bat. Zelan zabilzate aurre egiten?**

Batez ere, espazioei dagokienez ekarri du aldaketa. Adibidez, otordu denak batera egiten ditugu, eta txandak egiten ditugu janaria batzeko, prestatzeko eta dena garbitzeko. Urтарanen helburua hau suntsitu eta min egitea dela uste dut, baina kontra-

koa gertatu da, inoiz baino baturago eta indartsuago gaude.

**Zenbat bizilagun zaudete?**

150 inguru. Ikasleak, familiak... Euskal Herriko leku guztietatik etorritakoak, Alemaniatik, Argentinatik, Txiletik... Bestalde, okupazio aurreko bizilagun batzuk ere badaude oraindik.

**Eredu hori ez al da utopia bat?**

Argi dago bide luzea dagoela aurretik, eta ez dela erraza. Baina uste dut ez dagoela ezer ezinezkoa. Errekaleorrek bere horretan ez du mundua eraldatu, baina gure ingurua Errekaleor edo Sorginola moduko proiektu txikiez betetzen badugu, inork ez gaitu geldituko.

**Alkateak dio etxeak arrisku egoeran daudela.**

Ez dut nire bizia inoiz arriskuan ikusi; alokairuan egoera prekarioagoan bizi direnak ezagutzen ditut. Gainera, geu gara gure segurtasunaz kezkatzen garen lehenak. Azpiegiturak ahalik eta ondoen mantentzeko, azpiegitura taldea daukagu, arkitektoen txostenei jarraituta lan egiten duena. Urтарanena, interes urbanistiko bat ezkatutzeko arrazoi merke bat da.

**Sorginolako okupazioan ere egon zinen. Oraingo gazteak konformistak zaretela diote askok.**

Uste dut konformismoa ez dela gazte izaeraren ezaugarri bat. Sorginolako Durangori sekulako eskaintza egiten dio, konformismo horregaz apurtzeko leku bat ematen die gazteei.

## 21.000 euro batu dituzte jada, energia eguzki plakekin lortzeko

Diru-bilketa kanpaina hasi dute, 100.000 euroko inbertsioa egiteko

Argindarra moztu ostean, egoerari aurre egiten eta euren filosofian sakontzen dabilta Errekaleorreko bizilagunak. Hemendik aurrera, eguzki plaken energiagaz bizitzeko ideia dute, eta inbertsioa 100.000 eurokoa izango litzatekeela uste dute. Horregatik, diru-bilketa hasi dute *croopfunding.net* atarian. Jada 21.000 euro batu dituzte, eta oraindik 44 egun falta dira kanpaina amaitzeko.

Errekaleorreko proiektuak lortutako onarpen sozialaren isla da diru-bilketarena. Zapa-

**Macho, zapatuko manifestazioaz: “Oso pozik gaude, erantzun oso indartsua izan zelako”**

tuan, milaka lagun eta mugimenduk manifestazio anitza egin zuten. “Oso pozik gaude, erantzun oso indartsua izan delako. Pertsonalki, malkoak ere atera zitzaizkidan”, gogoratu du Hilargi Machok. 150 pertsona ezagunek babes-manifestu bat sinatu dute, eta tartean daude Bernardo Atxaga, Blanca Urgell, Ruper Ordorika, Karra Elejalde, Juanito Oiarzabal eta Toti Martinez de Lezea.



Milaka lagun batu ziren zapatuan Errekaleorren alde.



# Durangaldeko bost bat mila langilek preso eta iheslarien etxeratzearen alde sinatu dute

Ekainaren 17an manifestazioa egingo dute Gasteizen, 'Ireki' izeneko kanpainari amaiera emateko



Zornotzako Bertako Logistika enpresan dinamikagaz bat egin duten beharginetako batzuk, talde argazkian.

**DURANGALDEA** M. Onaindia  
Presoen eta iheslarien etxeratzea eskatzeko asmoz, *Ireki* izeneko kanpaina garatu dute urritik hona langile mugimenduen baitan. Euskal Herrian 150.000 sinadura batzea gura zuten, hemen inoiz egin den bilketarik handiena izatea erronka lez hartuta. Durangaldean ere ibili dira fabrikarik fabrika eta bulegorik bulego, eta bost bat mila beharginek sinatu dute, dinamikaren eskualdeko ardura den Aitzol Agirre LABeko kideak azaldu duenez. Kalean jaso dituztenak gehituta, 7.000 sinaduratik gora lortu dituzte.

Ekainaren 17an manifestazioa egingo dute Gasteizen, kanpainari amaiera eman eta emaitzaren berri emateko. 11:00etarako, martxetara deitu dute Arangiz eta Otazu auzoetatik,

eta 12:30ean hasiko da mobilizazio nagusia, Ama Zuriaren enparantzatik.

Durangaldetik hainbat autobus irtengo dira Gasteizera joan ahal izateko. Hain zuzen ere, Abadiñon, Durangon, Elorrion, Zornotzan eta Ermuan antolatu dituzte autobusak.

**Foro sozialaren esku**  
Agirrerren esanetan, batutako sinadurak Konponbiderako Foro Sozialaren ordezkari

Kalean jaso dituztenak gehituta, 7.000 sinaduratik gora lortu dituzte guztira

entregatuko dizkiete. Izan ere, dinamika "preso eta iheslarien etxeratzea errazteko tresna" izatea gura dute. "Azken urteetan, presoen egoeraren inguruan lan munduan garrantzizko lanik ez dela egin uste dugu", esan du Agirrek, eta ekimen honegaz ekarpena egin gura izan dutela.

## Arkeologiari buruzko bi berbaldi, Txanportan

Ekainaren 15ean izango da lehenengo hitzaldia

**ABADIÑO** I. E.

*Euskal Herria Burdin Arotik Erromanizatorantz* izenburuko zikloaren barruan, berbaldi bi izango dira datozen bi asteetan Txanporta kultur etxean. Azkoitiko Munoaundiko indusketetan lanean dabiltzan Arantzadi Zientzia Elkarteko arkeologo bi gonbidatu dituzte hitzaldiak eskaintzera.

Sonia San Jose historialari eta arkeologoak *Burdin Aroko herri harresituak Euskal Herrian* berbaldia eskainiko du, ekainaren 15ean, 19:00etan. Burdin Aroko metalurgiaren inguruko doktoradutza prestatzen dabil San Jose, eta espe-

rientzia handia du historiaurreko arkeologia arloan.

San Jose bezala, Arantzadiko Historiaurreko Arkeologia sailean dabil bigarren berbaldia eskainiko duen Antxoka Martinez arkeologoa. Burdin Aroan eta Erromatarren garai-ko arkeologia militarrean dago espezializatuta Martinez, eta *Burdin Arotik erromanizatorantz* hitzaldia eskainiko du, ekainaren 22an, 19:00etan.

Durangaldetik gertu egin duten lana oinarri hartuta, gure eskualdean egon daitezkeen mota horretako aztarnez ere jardungo dira arkeologoak Abadiño berbaldietan.

## Lehenengo spinning maratoian ia 5.000 euro batu zituzten zapatuan

Antolatzaileek adierazi dute "arrakasta handia" izan dela maratoni solidarioa

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Haur minbiziaren ikerkuntzan Gurutzetako ospitalean egiten duten lana laguntzera

bideratuko dute ekainaren 4an Traña-Matienan egin zuten spinning maratoni solidarioan batutako dirua. Ekimenaren

bultzatzaileek esan dutenez, oraindik hainbat itsulapikotako ekarpenak zenbatzea falta zaien arren, 4.700 euro zenbatu dituzte dagoeneko. Ekain Lopez antolatzaileak azaldu duenez, "dena zenbatuta, 5.000 euro tara ailegatzea aurreikusten dugu". Sei orduko spinning maratoian parte hartu zuten 260 kirolarien izen-ematetik, paella eta kamiseten salmentatik eta zozketa batetik batutakoa da diru hori.

Lopez berbetan, eguraldiak lagundu ez arren, lehenengo edizioari "itzelezko erantzuna eman dio jendeak, eta asmoa da datorren urtean ere ekimen solidarioa antolatzea".



Jendeak "itzelezko erantzuna" eman zuela diote antolatzaileek.

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

**Podinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ** **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**GAER** 

**DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

**Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ**



## Inkestaren %71k ez ditu ezagutzen udalaren partaidetza tresnak

Inkestaren emaitza guztiez ez informatzea salatu du oposizioak, tartean, Maeztu dela baloratuena

**DURANGO** J.D. / M.O.

Durangoko Udalak inkesta soziologiko bat egin du, 700 herritarren iritzia kontsultatuta. Otsailaren 27tik martxoaren 2ra bitartean telefonoz deituta garatu zuen inkesta, eta horren emaitzak aztertuta, prentsa ohar bat kaleratu du. Besteak beste, inkestaren %71k ez dituzte ezagutzen instituzioak parte-hartzeko dituen tresnak. Hala ere, Aitziber Irigoras alkateak azaldu du herritarren ikuspuntua ezagutzen jarraitu gura dutela, erabakien abiapuntu izateko. “Durangoko Udala instituzio gardenena da, une oro

irekia herritarren parte-hartzera. Udal kudeaketaren inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzen jarraitu gura dugu, lehen eskutik”, esan du.

Durango bizileku ona dela diote inkestan, 8,12ko nota ipini diote eta. Herriak zer proiektu behar duen galdetuta, %9,4k trenbide zaharren espazio hutsa erabiltzea proposatu du.

Arazo nagusien artean, %12k aparkaleku arazoa aipatu du.

### “Irakurketa partziala”

Hauteskundeak orain eginez gero, emaitzak “orain bi urteko berdinak” izango liriteke. Irigo-



Herritarren iritzia ezagutzen jarraituko dutela azaldu du Irigoras alkateak.

ras da ordezkariarik ezagunena, %45,89ko ezagutza mailagaz eta 20 puntutik gorako aldeagaz.

Baina inkesta “propagandarako” erabili dela esan du Herriaren Eskubideko Julián Riosek. Adibidez, ondoen balo-

ratutakoa, 6,31ko notagaz, Dani Maeztu (EH Bildu) izateaz ez dela informatu salatu du. PPko Garatek soilik suspendituko luke. Rios pozik dago bere alderdiak aprobatua lortu duelako. EH Bilduk ohar bidez udal go-

bernuaren “irakurketa partziala” salatu du. Bestalde, trenbide zaharreko proiektua legealdiko erronka zela-eta, ez dela pausorik eman kritikatu du. Gainera, Durangon “alternatiba bakarra” euren alderdia dela diote.

## 197.000 euro inbertitu dituzte igerilekuak berrizten

**DURANGO** M.O.

Eguaztenean Tabirako kanpoko igerilekuak zabaldu zituzten, denboraldiari hasiera emanda. Aurten 197.000 euroko inbertsioa egin dute, inguru eta zerbitzuak berrizteko asmoz. Pilar Rios alkateordearen esanetan, “segurtasuna eta irisgarritasuna” hobetzea beharrezko ikusten zuten, eta legeak ere aldaketa batzuk eskatzen zituen. Gainera, kalitatea handitzeko helburua ere eduki dute.

Gainera, gurpildun aulkian dabilzanentzat gune berezi bat sortu dute

Esaterako, belarraren zati handi bat –bi heren– berritu dute, eta umeen jolasguneak ere bai. Gainera, gurpildun aulkian dabilzanentzat gune berezi bat sortu dute, eta igeri egiteko ere aulki irisgarri bat ezarri dute.

Iaz berdegunea handitu zuten, 2015eko egun batzuetan jendea sartu ezinik geratu zelako. 1.500eko edukieratik 1.900era pasatu zuten. Hala ere, iaz kasik mugara heldu ziren, erabilerari handiaren seinale.

## Gure Esku Dagok JAEDI eman dizkio jabe bako sariak

**DURANGO** J.D.

Maiatzaren 7ko galdeketa dela eta, Durangoko Gure Esku Dagok tonbola antolatu zuen herriko merkatari eta ostalariek emandako opariekin. Sariak jasotzeko epea luzatu arren, tonbolako opari batzuk ezin izan dituzte banatu, jabeak ez direlako agertu. Horiekin zer egin pentsatzen hasi, eta arazo ekonomikoak dituztenen alde lanean diharduen JAED elkarteari ematea erabaki dute. Elkarte horretako Iñaki Gorritxategik jaso zituen sariak Gure Esku Dagoko kideen eskutik, martitzenean.

Bestalde, Gure Esku Dago mugimenduak erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldiak bultzatzen jarraitzen du. Horrela, bihar, zapatua, Bilbon egingo den ekimenean parte

Gure Esku Dagok tonbola antolatu zuen herriko merkatari eta ostalariek emandako opariekin

hartzeko gonbita egin dute. Hitzordua 17:30ean izango da, Euskadi plazatik eliptikoraino. Galdera ikur erraldoi bat irudikatuko dute, kamiseta laranjak jantzita eta globo gorriak eskuetan hartuta.

## Elikagaien industriarekin lotutako ikasketetan lan aukera zabala dago

Elikagaien sektoreko enpresetan egiten diren lanen kontrola eramateko gaitasuna bereganatzen dute ziklo hau ikasten duten ikasleek. Laborategietako teknikari, I+G+b arloko teknikari, Ekoizpen prozesuko ikuskatzaile edo Kudeaketa sistemak ezartzeko arduradunak ere izan daitezke



**Jon Azkue**

Lezama, 1989  
Elikagaien Industriak zikloa ikasi ondoren, gaur egun DENTICI enpresan Kalitate ardurekin lanean ari da.



**Patricia Arina**

Lekeitio, 1973  
Nekazaritzako Ingenieritza egin ondoren Elikagaien Industriak zikloa ikasi zuen eta gaur egun Elikagaien Industrien arloan irakasle lanetan ari da.



**Veronica Calzado**

Donostia, 1980  
NORTINDAL enpresan lanean dago, Kalitateko kide moduan, IFS taldean, eta titulazio ofiziala lortzeko Elikagaien Industriak zikloa ikasten ari da.

### ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa).
- Mantenimendu elektromekanikoa.

### GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak.
- Automatizazioa eta robotika industrialia.
- Mekatronika industrialia.
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.
- Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian.
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa.
- Web aplikazioen garapena (2.maila).



Markina-Xemein  
94 616 90 02  
info@leartik.com  
[www.leartik.com](http://www.leartik.com)



**ZALDIBAR** Itsaso Esteban  
Orain arte ospitale psikiatrikoaren hesi barruan itxita egon den 3.448 metro koadroko lursaila zaldibartar guztientzat zabalik egongo den berdegune moduan egokitzeko lanen bigarren fasea esleitu du Zaldibarko Udalak. Lanen lehenengo faseko lanak egin dituen enpresak berak, Lasunen enpresak, jaso du 32.972 euroko esleipena.

Otsailean obra hasi zute-nean, ospitale inguruko hesi berria altxatzeko lanek lau hilabete iraungo zutela aurreikusitu zuen gobernu taldeak, baina asteon udal gobernuak jakitera eman duenez, lanen parte bat baino ezingo dute amaitu uztaileko. Obraren bigarren partea uda ostean egingo dute.

Uda ostean amaituko dituzte eremu horretan anfiteatroa eta komun publikoa atontzeko lanak

Arantza Baigorri alkatearen berbetan, lanak ospitalagaz koordinatzea ez da lan erraza izan, eta horregatik atzeratu da obraren amaiera data. Alkateak

## Uztailean zabaldu gura du udalak ospitaleko berdeguneko zati bat

Obraren lehenengo fasea herriko jaietarako amaitzea espero du udalak



Altxatu duten altzairuzko hesiari azken ukituak eman eta berdegune zati bat uztailean zabaltzea gura du udal gobernuak.

azaldu duenez, hainbat bider eten behar izan dute obra.

Ospitaleko berdegune zati bat zaldibartarren erabilerarako zabalik utziko duen altzairuzko hesi berria altxatu dute dagoeneko, eta egitura horri azken ukituak ematea falta zaie.

Datozen asteetan, bestalde, ospitaleko segurtasuneko garita berria atontzen amaitu behar dute. Euskal Herria eta Olazar kaleen bidegurutzetik ambulatiorainoko zatia uztaileko prest egotea espero dute, herriko jaietarako.

Beste hainbat lan uda ostean amaituko dituzte: berdeguneko eremu batean atonduko duten anfiteatroa eta orain ospitaleko segurtasuneko garitan egingo duten komun publikoa, esaterako. Herriko lehenengo komun publikoa izango da.

## Eguenean hasiko da V. Gari Rock musika jaialdia

**ZALDIBAR** I. E.

Jon Gurrutxagaren eta Keu Agirretxearen kontzertuak abiatuko du V. Gari Rock Fest musika jaialdiaren programazioa. Ekainaren 15ean, 21:00etan, Gaztetxean izango da zuzeneko hori, eta, aurretik, 20:00etan, afari-merienda egiteko elkartuko dira. Ekainaren 16an gauez, eta 17an egun osoan zehar, Gari Rock jaialdiaren barruko hainbat ekitaldi izango dira. Crap eta La Gripe taldeek bi euroko sarrera edukiko duen kontzertua joko dute 16an

Ekainaren 17an, bazkaritarako elkartuko dira, 14:30ean, eta bazkalostean eta gauean izango diren zuzenekoekin emango dute amaitutzat aurtengo musika jaialdia. Mud Candies gonbidatu dute bazkalostean jotzera (16:30ean hasiko dute kontzertua) eta Fetitxe eta Last Fair Deal taldeek 23:00etan joko dute. Lau euroko sarrera izango du azken kontzertu horrek.

## Herriko basoetatik atera gura dute erregaia biomasa galdara berrirako

Termostatoa jartzea baino ez da falta urrian hasitako lanak amaitzeko



Berokuntza sistema plazaren beste aldeko geletara zabaltzeko aukera dago.

**IZURZA** J. D.

Udal eraikinean eta frontoiko aldageletan biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko lanak ia amaituta daude. Termostatoa jartzea baino ez da falta urrian hasi ziren lanei errematea emateko. 100.000 euroko inbertsioa eskatu du.

Lehenengotan, enpresa batek ekarriko du galdararako beharrezko erregaia, baina, aurrera begira, herriko basoetatik hornitzea da helburua. "Hainbat baso ditugu, eta horiei ahalik

eta aprobetxamendurik handiena ateratzea gura dugu", adierazi du Lorea Muñoz alkateak.

Epe luzera dirua aurrezteko modua izan daitekeela dio. Sistema berriagaz elektrizitatearen menpekotasunetik irteteko helburua ere badute.

Hoditeria berria udaletxeko gela denetara heltzen da. Beorari eusteko, sentsore bidezko kristalezko atea jarri dute harrierara sartzeko pasilloan.

Gainera, harguneak prest utzi dituzte etorkizunean plazaren beste aldeko eraikinera (medikuaren kontsulta...) luzatzea erabakiko balitz ere.

Berokuntza sistema berria martxan jartzen denean, mugikorretik kontrolatu ahaliko dute aplikazio baten bidez.

## Gerea auzoko jaiak hasiko dituzte, 16an

**MALLABIA** J.D.

Gerea auzoan San Adrian jaiak ospatuko dituzte ekainaren 16tik 18rako asteburuan. Adrian deunaren egunean, hilaren 16an, txopoa jasoko dute, 19:00etan. Biharamunean umeentzako txokolatada prestatu dute, 16:00etan, eta ostean, briska txapelketa hasiko da. Domeka goiza Gazte Alai dantza taldeagaz hasi eta bertsolarien saioagaz zein herri kirol erakustaldiagaz jarraituko dute. 18:00etan, asto probak (Irazola, Uranga eta Satzibar) hasiko dira.

**SURFLARIA ETA PARADISUA**  
Ekainaren 15ean eguna, 19:00etan  
**SURFLARIA eta PARADISUA** liburuaren aurkezpena  
Iñigo Urdinaga (Orio) + Txomin Magdalena (Durango)  
**SARRERA DOAN!!**

**hitz** artekalea, 23 durango 946 810 776 #aurkezpena  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

**XI. KALEZ-KALE IURRETA 2017**

**EKAINAK 15**  
CIE BARRE TRÁS LA ESCOBA 18:00 ASKONDON

**EKAINAK 16**  
SHAKTI OLAIZOLA BALDINBADA 18:00 ASKONDON  
PARABOXA ZUHAR PREST 19:00 ASKONDON  
MARKELINE CRUSOE 20:30 PLAZAN

**EKAINAK 17**  
DRTZI ILUSIDA 19:00 ASKONDON  
PHITALOTAJOLEA MR. PICHICHI 20:30 KASKOAN

**EKAINAK 18**  
HODEI MAGOA ILUSIOAREN INDARRA 13:30 DANTZARIN

Iurreta (Euzkaleren Liburu) Bizkaia



# 1967an odol-emaile egin zirenak omendu ditu Odol Alai elkarteak

Duela 50 urte 59 elorriar egin ziren odol-emaile Odol Alai elkartearen



Domekan egin zuten 50. urteurren ekitaldia. Josu Urizarbarrena.

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
1967an odol-emaile bilakatu ziren herritarrek omendu ditu Odol Alai elkarteak, asteburuan, Elorrion.

Elkartearen 50. urteurren jaietan, duela mende erdi odola ematen hasi ziren 59 pertsonak omendu zituzten. “1967an odola

eman zuten emaile horiei esker ospatu ahal izan ditugu 50 urte. Beraz, guretzat garrantzitsua zen urteurren jai hau ospatzea”, adierazi du Jose Antonio Uriarte Odol Alai elkartearen presidentek.

Bizkaiko odol-emaileen elkarte zaharretarikoetako

presidentek adierazi duenez, Elorrion emaile izateko kontzientzia badago. “Urteetan zehar ikusi dugu Elorrioko herritarrek odol-emaile izan gura dutela. Gainera, horrek duen garrantziaz jakitun dira, eta hori oso garrantzitsua da”, aitortu du Odol Alai presidentek.

## 1.110 odol-emaile

Basauriko elkartearen ostean, Bizkaiko elkarerik zaharrena den Elorrioko elkarteak 50 urtean 1.110 emaile izan dituela jakitera eman du Jose Antonio Uriartek. Egun, berriz, 312 emaile ditu Odol Alai. “Momentu honetan, 186 odol-emaile gizonetzko ditugu, eta 126 emaile emakumezko. Apurka-apurka emaileak gehitzen joatea garrantzitsua izango litzateke”, adierazi du presidentek.

186 odol-emaile gizonetzko eta 126 emaile emakumezko ditu egun Odol Alai elkarteak

## Omenaldi hunkigarria

Arriola Kultur Aretoan hasi, eta duela hamar urte Herriko plazan jarri zuten monolitoan bukatu zen joan zen asteko ekitaldia eta, Uriartek esan duenez, “berezia eta hunkigarria” izan zen.

Ekitaldian egon zirenek organo eta odol-hartzailen baten testigantza entzun ahal izan zuten. “Testigantzek ekitaldia berezi egin zuten, eta jendea eskertuta ateratzen omenalditik”, bukatu du Uriartek.

## Santi Onaindia ikerketa bekaren deialdia hasi dute Zornotzan

### ZORNOTZA J.D

Santi Onaindia ikerketa beka eskatu ahal izateko deialdia onartu du Ametx Erakundeak. Aurten 15. aldia egingo duen bekarako dokumentazioa aurkezteko epea irailaren 29an amaituko da. Bekaren irabazleak 9.000 euro jasoko ditu bere ikerketa gauzatzeko.

Banaka nahiz taldean aurkeztutako proiektuak izan daitezke hautagai. Interesatuak hiru bide dituzte hartu-emanetan jartzeko: Zelaieta Zentrorra joanda, posta bidez edo [euskara@ametx.eus](mailto:euskara@ametx.eus) helbide elektronikoan.

Hogei urtean hamar liburu argitaratu dituzte bekaren bidez. Azken biak Beñat Sarasolarenak eta Gorka Merceroarenak izan dira. Sarasolak euskal literaturaren azken hamarkadetakoa ibilbidea jorratu zuten *Baina belaunaldia: Ustela, Pott, Oh! Euzkadi* liburuan. Mercero euskal narratiba garaikidearen ikuspegi orokorra aztertu zuten, gaurko mundu ikuskeratik abiatuta.

## Munduko janari dastaketa Legañoako jaietan

Domekara arte jai-giroa izango da nagusi Legañoan

**BERRIZ** M. Zuazubiskar  
2014an Legañoako jaiak berreskuratu ostean, aurten ere jai-giroa egongo da Berrizen. Gaur, 20:00etan, igel txapelketagaz eta parriladagaz emango diote hasiera jaiak. Ostean, 22:00etan, *Bad Limit* eta *The Enfermos* musika taldeek kontzertua eskainiko dute.

Zapaturako egun osoko egitaraua antolatu dute. 13:00etan,

kanta mexikarrekin hasiko dute eguna, eta 14:00etan, Jose Ramon Korpionen oroimenezko bakailao lehiaketa egingo dute. Arratsaldean, umeentzako jolasak egongo dira, eta 22:00etan, munduko janari dastaketa egingo dute. Ostean, *Oharkabe* taldeak gaua girotuko du.

Domekan, azken urteetan ohitura bilakatu den kulturarte topaketa egingo dute.

## 170 dantzari batuko ditu Euskal Jaiak

Goizean egingo dute alardea dantzariak, frontoian



Egurdian egingo dute dantzariak alardea.

**ATXONDO** M. Zuazubiskar  
Andasto dantza taldeak antolatzen duen Umeen Euskal Jaiak 170 dantzari batuko ditu domeka honetan. 12:00etan irtengo den kalejiragaz hasiko dira domekako ekitaldiak. Kalejiraren ostean, frontoian alardea egingo dute.

Arratsalderako, berriz, DJ jaialdia antolatu dute Atxondon. “Lehenengo Euskal Jaiaren formatua asko gustatu zitzaigun, eta berriz ere horretara bueltatzea erabaki dugu”, adierazi du Irati Armendia Andastoko kideak. “Horregatik, alardea goizean egingo da, eta arratsalderako DJ jaialdia antolatu dugu”, bukatu du Armendiak.

konfiantzaz

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

## Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 5etik 16ra

→ TAFYD

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext 4322) • [lanbideheziketa@arizmendi.eus](mailto:lanbideheziketa@arizmendi.eus)

[www.arizmendipro.eus](http://www.arizmendipro.eus)





Hainbat herritako alkateak batu zituen ekitaldiak, beste ordezkari batzuen artean.

## Gela berrian egin dute Hontza museoaren 30. urteurren ekitaldia

Espazio erabilgarria biderkatuta, espezie eta ale berriak gehituko dituzte

**MAÑARIA** Joseba Derteano Natura-Zientzien Hontza museoak 30 urte egin ditu. Orain urte bi eta erdiz geroztik Zumelaga eraikinean dago museoa, Kirikiño idazlearen etxea zeneko eraikinean, hain zuzen. Orain arte, behealdeko

120 metro karratuetan hainbat espezieetako 661 ale erakutsi dituzte. Laster, lehenengo solairuan beste gela bat gehituko diote. Gela horretan egin zuten, hain zuzen, urteurreneko ospakizuna astelehenean. Asteon hasi eta irail ingurura

arte erakusketa berrantolatzen arituko direla azaldu du Enrike Huerta museoako presidentek. “Museo osoa aldatuko dugu, eta lan handia eskatuko digu”, esan du. Orain museoak dituen 130 metro karratuak ia 300 bihurtuko dira. Beraz, askoz

espazio gehiago izango dute. Orain beira-arasetan erakusten dituzten 661 aleak 1.100era arte gehituko dira gutxi gorabehera. Esaterako, moluskuek, beira-arasa bat beharrean, sei izango dituzte moldaketa amaitzen deanean, eta berdina gertatuko da beste espezie batzuekin.

Museoko sarreran 30 urteetako bidea islatzen duen erakusketa dago, argazkiekin eta bestelako osagaiekin, eta, momentuz, eutsi egingo diote erakusketari.

Orain hainbat espezieetako 661 ale dituzte; kopuru hori biderkatzea ahalbidetuko du gela berriak

**Ordezkariek, ez gura beste** Hainbat herritako alkate eta zinegotzi batu zituen asteleheneko ekitaldiak, eta baita beste museo batzuetako ordezkariak ere. Mañariko, Atxondoko, Garaiko eta Izurtzako alkateak batu ziren, besteak beste. Hala ere, eskualdeko alkate denak zein beste museo eta erakunde batzuetako ordezkariak gonbidatuta zeudenez, “azkenean izan zena baino gehiago izan zitekeen”, uste du Huertak.

## HAZ udaletxean eskainiko dute, aldi batean

**IURRETA** Aitziber Basauri Herritarren Arretarako Zerbitzu (HAZ) integral berria sortzeko asmoz, lekua egokitzeko lanak hasi zituzten, astelehenean, Bidebarrietako udal bulegoetan. Irailaren 14ra arte iraungo dute lanek, eta, udal ordezkarien arabera, ordura arte udaletxean eskainiko dute zerbitzua. Diotenez, horrela amaituko da azken urte bian “arreta hobetzeko, izapideak errazteko eta udalagaz harremana eskuragarria egiteko” egindako lan iraunkorra.

**Bertan erosteko kanpaina** Bestetik, *Herriko dendetan erosi; zuk irabazten duzu, Iurretak irabazten du* kanpainak “arrakasta handia” izan duela diote udal ordezkariak. Jose Luis Garamendik irabazi du herriko dendetan erosi ostean aurkeztutako 900 tiketaren artean zozkatu duten 100 euroko txartela; 30 eurotik gorako erosketak egin dituztenen artean 250 poltsa banatu dira. Ekainean ere aurrera darrai kanpainak.

**Oñati gestio heziketa**

**Izen-ematea**

Ekainak 5etik 16ra

**Eskaintza akademikoa**

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Administrazioa eta Finantzak</li> <li>▪ Zuzendaritza Idazkaritza</li> <li>▪ Salmenta Kudeaketa</li> <li>▪ Nazioarteko Merkataritza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>▪ Automatizazioa eta Robotika Industrialia</li> <li>▪ Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>▪ Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li> <li>▪ Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa</li> <li>▪ Mekatronika Industrialia</li> </ul>

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

2017-2018

www.mondragon.edu/ogh  
rigarza@mondragon.edu  
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz  
gmhz.mgep@mondragon.edu  
943 71 21 91 • 664 277 592



# Mekoletan hiru urmael prest daude anfibioen ugalketa errazteko

Ezaugarri desberdinetakoak egin dituzte, ahalik eta espezie gehien hartzeko



Mekoletan egin duten urmael bat; guztira, hiru daude, eta handienak 120 metro karratu ditu.

**OTXANDIO** J.Derteano Mekoleta auzoan, errekararen inguruko gune batean, anfibio komunitate aberatsa dago. Europar espezie asko arriskuan daudenez, Otxandion komunitate hori babesteko neurriak hartu dituzte. Anfibioen ugalketa errazteko helburu duten hiru urmael artifizialak prest daude.

Urmael bi pagadi bateko gune umel batean egin dituzte. Hirugarrena landa batean dago, eta hiruretan handiena da, 120 bat metro karratugaz. Gainera, azken honi geruza iragazgaitz bat gehitu diote. Oraingoz, hiru urmaelak zuloak dira. Prozesu naturalak beteko ditu urez eta jantziko ditu landareak. "Ezau-

garri desberdinetako urmaelak sortu gura izan ditugu, ahalik eta espezie gehienetara heltzeko", azaldu du proiektua gauzatzeko ardura duen Ambientalia 21-eko kide Sergio Gallegok. Aranzadi elkarteagaz elkarlanean dabilta, eta udalaren eta Jaurlaritzaren laguntza dute.

Harrapakariengandik ezkutatze eta negua igarotzeko babes-guneak ere egingo dituzte, baliabide naturaleko osagaiak konbinatuz: zuhaitz enborrak, harriak, lurrak... Bat ia amaituta dago, eta beste bat egiteko asmoa dute.

Espezie batzuk ohikoagoak dira (apo arrunta, ur-igel arrunta) eta inguru hartan erraz iden-

tifikatu dituzte. Desagertzeko arriskuan daudenak urmael-tara erakartzea da erronka, apo pintatu iberiarra, esaterako.

Oro har, "biodibertsitateari laguntzen" dion proiektua delad dio Gallegok. "Habitat txikiak sortzen laguntzen dugu, eta hortik abiatuta fauna eta flora garatzen da, gero eta sistema konplexuagoak osatuz".

## Heziketarako tresna

Gune hori ingurumenarekiko kontzientziario lantzeko gune bihurtu gura dute. Ibilbide bat sortuko dute bertara, eta azalpen panelak gehituko dituzte. Udaren ostean irteera bat antolatu gura dute ikasleekin.

## Mekolatako jaiak musikagaz hasiko dituzte gaur

**OTXANDIO** J.D.

Mekoletan San Bernabe jaiak hasiko dituzte gaur. 23:00etan, Liher eta Larregi taldeek kontzertua dago. Bihar, 17:30ean, Urduri dantza taldeak saioa eskainiko du. Ostean *Ipui karamilatua* ikuskizuna eskainiko du Ikusi Makusi taldeak. 20:00etan triki burduntzian parte hartzeko gonbita egin dute. Gauean, kopla txapelketaren ostean, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuen taldearen kontzertua dago. Domekan, San Bernabera igoko dira.

## Asturiasen hil zirenak oroitu dituzte, etzi

**GARAI** M.O.

Asteburu honetan Durangaldeko hainbat lagun Asturiasera joango dira, 1987an erreskate lanetan hil ziren lagunei omenaldia egiteko. Elorrioko salbamendurako txakurren taldeko lau kide hil ziren helikoptero istripuan, eta tartean Joseba Zabala garaitarra ere bai. Horregatik, Garaitik autobus bat aterako da bihar eguerdian. Elorriotik ere hainbat lagun joango dira, Idoia Buruaga alkatea tartean dela.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**GOIZTIDI DIAZ BASTERRA**  
EAJ



## Euskaraz bizi!

Urtero bezala, aurten ere Euskal Astea ospatzen dogu. Jakina da gure hizkuntza eta kulturaren inguruan antolaturiko ekintza hauek aste bat baino gehiago irauten dabiela. Izan ere, hogei urte daramaguz Euskal Astea ospatzen, eta horregatik, egoki baino egokiago deritzot aurten egin zaion izen aldaketa. Honela, aurten ez dogu Euskal Aste bat euki, Euskal Jaiak euki doguz. Baina, nahiz eta izena berri, jardunaldi hauek ez dabi beren izaera aldatu.

Zein pozgarria dan ingurura begiratu eta euskararen egoera nola aldatu dan ikustea. Antzina gure amama eta aititek euskeraz bizitzeko aukera murriztua zuten eta gaur egun, ordea, euskeraz bizitzeko aukera zabala degogu.

Atzo, adibidez, kirola egiten joan eta spinning klasea euskeraz egin genuen bere osotasunean. Aurrerapauso bat eman, kirola ere euskeraz egiteko aukera izango dogu. Hala ere, eta bidezkoa da esatea, euskera aspalditik dago kirolean barneratuta, aspalditik erabiltzen dabi eta monitoreek euskal musika kirol klaseak dinamizatzeko.

Egia da euskararen normalizazioak badekola bide luzea ibiltzeko. Ez dekot zalantzarik egunerok aurrerapausoak eginez bide guztia burutuko dogula. Dannon lana da euskeraz bizitzea eta besteei euskeraz bizitzeko aukera ematea. Batzuek Euskal Jaiak antolatzen laguntzen, eskerrik asko Durangoko elkarte guztiei. Beste batzuek gure lanpostuetan, euskaldunei zerbitzuak euskeraz emateko aukerak lantzen. Guztiok dekogu zer emon, nahiz eta spinning klase bat izan, hori bai, bizkaiera peto-petoan eman ere. Txapo monitorea! Guztion lana da euskeraz bizitzeko aukera sortzea!

## DURANGALDEA ASTEON

### Mas Curvas elkartearen urteurren jaia, Elorrioren

**ELORRIO** > Mas Curvas elkarteko motozaleek Elorrioren ospatuko dute lehenengoz urtemuga jaia, zapatuan. X. urteurren jairako, motor ibilbidea, ikuskizunak, umeentzako jolasak, bazkaria... antolatu dituzte. Urteurren jaiaren parte hartu gura duenak aurrez eman dezake izena, 627 142 384 telefono zenbakira deituta.

### Umerri proiektua ezagutzeko aukera

**BERRIZ** > 2011n Garain jaio zen Umerri proiektua ezagutaraziko dute, Berrizen, datorren eguaztenean. Ate irekien bitartez, familia berriek proiektua ezagutzeko aukera izango dutela jakitera eman dute Umerriko kideek. Horretarako, hilaren 14an, 17:30ean jarri dute hitzordua Berrizko Elizondo plazan.

### The Reverendos-en kontzertua U2 tabernan

**MAÑARIA** > Blues, swing eta rock&roll doinuak ailegatuko dira gaur gauean Mañarira, Taska U2 tabernan antolatu duten kontzertuaren harira. Izan ere, The Reverendos taldeak zuzeneko kontzertua eskainiko du. The Reverendos hirukote bilbotarraren kontzertua 22:00etan hasiko da.

## IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

merkataritza  
gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902



## **> Berbaz**

Jon Pertika Cortés (Bilbo, 1937) | Basurtuko Beti Jai Alai dantza taldearen sortzailea

# “Parisko Lafayette biltegieta joan ginen Iurretako banderaren erreplika egiteko oihalak erostera”

Iurretako Dantzari dantza ezagutzera ematearren Pertikak egindako lana gogora ekarri gura izan du Gerediagak



**> BERBAZ** Jone Guenetxea

Joan zen zapatuan, Jon Pertika folklore sustatzaileari Teila saria eman zion Gerediaga elkarteak Durangaldeko dantzak ezagutarazten egin duen lan eskeraren errekonozimendu legez. Gerediagako baselizan omenaldi hunkigarria egin zioten bilbotarrari. Publikoan zeuden senitartekoek emozio handiz ikusi zuten zazpi urteko iloba aitonari banangoa dantzatzeko.

**Zapatukoa ekitaldi hunkigarria izan zen.**

Ni ez naiz omenaldi zalea. Lanen jardutera ohituta dagoen pertsona bat naiz. Burokrazia ez dut gustuko. Hala ere, oso eskertuta nago Durangaldean gogoan naukatelako, batez ere Iurretan.

**Iurretaz zein hartu-eman izan duzu?**

10 urteaz aitzak irakatsi zidanetik dantzan dihardut. Bilbo inguruan eta Enkarterrietan EAJko gazteek pentsatutako Dantzari dantza egiten genuen. Batzokietan ikasi zuten,

ekitaldi handi batzuetan egiteko: Ibaiondon, San Mamesen... Herria eraiki eta sustatu gura zuten. Horrela, gerraostean, 1947an, pauso batzuk erraza goak egin zituzten, eta inguru hartan horietan ikasi genituen denok. Hala ere, gogoan dut 11-12 urteaz talde bat ikusi nuela dantzan Quadra auzoan. “Zeinen txarto egiten duten dantzan gizon hauek!”, pentsatu nuen. Denboraz, taldea sortu nuen konturatu nintzen huraxe zela modua.

**Eta zelan berreskuratu zenuen Dantzari dantza?**

Iñaki Irigoienegaz hitz egin nuen, eta Dantzari dantzan aldatzeko egin behar genituela pentsatu genuen. Jose Javier Abasolo *Tiliñogaz* berba egin nuen, eta Iurretara etortzen hasi ginen, bertako Dantzari dantza ikastera. Bandera bat ere utzi zituzten.

**Bandera horregaz Europa osoa zeharkatu zenuen.**

Belgika, Alemania, Hungaria eta beste hainbat herrialdeetara

“**Iñaki Irigoienegaz batera, Dantzari dantzan aldaketak egitea pentsatu nuen**”

joaten ginen. Hungarian, behin, kolore apur bat ematearren, Luzaideko dantza batzuk dantza-tu genituen. Ekitaldia amaitu zenean, jaialdiko presidenteak esan zidan ezpatak eta makilak erabiltzen genituen dantza ikusi gura zuela. Europa erdialdean Dantzari dantza oso sartuta dute, eta asko gustatzen zaie.

**Zuen taldeko bandera propioa egiteko, Parisera joan behar izan zenuen.**

*Tiliñogaz* eta Mikel Izarzagaz berba egin genuen, bandera berri bat erreproduzitzeko. Estatuan ez zegoen zeta satinezko oihalik, eta, horregatik, Paris-

ko Lafayette biltegieta joan behar izan genuen Iurretako banderaren erreplika egiteko oihalak erostera. 1977an, barikuatean, Hendaian trenea hartu eta Parisera joan ginen. Iurretako banderaren zazpi koloreetako oihalak erosi genituen. Donostiara bidali zituzten, eta Ayeteko Jesusen Bihotzeko mojek bi erreplika egin zituzten, eskuz. Bordatua eskuz egin zuten. Japonian denbora luzez bitakoa moja baten artelana izan zen. Artista zen. Orain serigrafian erreplika bat gehiago egin dugu, eta hura gordeta dugu.

**Zelan ikasi zenuen Iurretako Dantzari dantza?**

Lau edo bost lagun etortzen ginen, astean behin. Gero, Bodeguillara joaten ginen.

**Dantzari dantzak zein garapen izan du azken urte hauetan?**

Trapagaranen ospatu berri den Dantzari Egunean taldeen %95ek Iurretako edo inguruko Dantzari dantza egiten dute. Beraz, pauso horiek mantendu egin dira.

**Teila saria jasotzerakoan dantzaren munduko modernitatea aipatu duzu.**

Errietaren bat irabazi dezaket orain esango dudana. Ez dut gustuko modernoa izan gura duen dantza hori. Euskal folkloreaken sustraiak aintzat hartuz, Dantzari dantzako pauso batzuk, Gipuzkoako beste batzuk hartzen dituzte... Dantzari ezin hobeak dira, entsegu itzelak egiten dituzte, bikain dantza egiten dute... baina handik irten eta ez zait gustatzen. Gertatzen dena da, jende gutxi duten taldeek pentsatzen dutela horrelako ikuskizunak egin ditzaketela. Baina horretarako behar bezalako prestakuntza ez baduzu...

**Gaur egun, zein garrantzia ematen diozu dantzaren oinarria mantentzeari?**

Herri bakoitzaren idiosinkrasia pauso horietan ikusten da. Zuberoako dantzak, adibidez. Esaten dutenez, Parisko balletak Zuberoako pauso asko hartu ditu.

**Beti Jai Alai taldeak 50 urte egingo ditu laster. Zelan ekin zenioten bideari?**

Beti Alai taldean dantza egin zuten batzuekin eta auzoko beste batzuekin taldea osatu genuen. Aitzak, aurretik, Beti Alai taldea sortzeko, makatzak lapurtzen ibiltzen ginen zaparro batzuk hartu gintuen, eta Beti Alai taldea sortu zuen. Bizkaia osoan egiten genuen dantzan, eta gaur egungo taldearen aurrekaria izan zen.

**Dantzak poztasunerako une asko eman dizkizu?**

Bai, zapatuko ekitaldia polita izan zen. Bilbon *Ilustres Bilbainos* saria eman ziguten. Dantza arloan ikertzen eta berreskuratzen jardun dugu. Esate baterako, Begoñako ezpata dantza berreskuratu genuen.

**Gerediagako horma irudietan dagoen alkatearen irudia zuek diseinatutako jantzi batean oinarrituta dago.**

Mikel Izarzak grabatu batzuk zituen etxean, eta nik Parisen aurkitutako grabatu batzuetatik abiatuta sortu genituen jantzi horiek.



# Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

**Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:**

%



## A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



## BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



## COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



## EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeke altzarietan.



## EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



## GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



## HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



## HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreraren.



## ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



## IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



## KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



## KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



## LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



## MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



## NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- > -%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.



## OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



## PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



## UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



## URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



## UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.

# Anbotoren Lagunak

## Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak






## Itzala



Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artetik?



Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

## Otordua

### Espera

**Txerri gosetiak...**

- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun





[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

## Zeeer?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan... Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarri orria ispiluaren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.



Etiketarik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria    dordoka    tutua edo biberioia    erlea


## Zuhartzeko etxola

Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:

- Txiklela
- Pelloziriren ordenagailu eramangarria
- Bi tximeleta
- Eskuargi bat
- Bi sagu
- Barraskilo bat
- Igela
- Plastikozko ur botila
- Hontza
- Txerrikumea
- Sugea







# GREMIOEN GIDA



## GARBIKETA

**AZKARGI  
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215



## ZURGINTZA

**leike** aroztegia &  
diseinua &  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**ATERPE ARROTZAL**

EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)



## ITURGINTZA

**Mallabiena** 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

**UNAI  
GARAY**

ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

659 673 790 · [unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)



## DEKORAZIOA

**JAIO**barnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,  
armairu aurrekaldeen eta  
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
[info@jaiobarnizatuak.com](mailto:info@jaiobarnizatuak.com)  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



## ITURGINTZA

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
[ubide@euskalnet.net](mailto:ubide@euskalnet.net)  
48200 DURANGO  
188 PK.

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza

ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

[info@aldekoaotalora.com](mailto:info@aldekoaotalora.com)  
692 859 779

Zubiourre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**



## Bosgarren diskoa aurkeztuko du Sermond's laukoteak, Elorrioko Arriolan

Disko berriko kantak eta taldearen ibilbideko beste hainbat joko dituzte ekainaren 16ko zuzenekoan

**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
Taldearen aurreko hiru diskoe-takoak bezala, Elorrion joko ditu Sermond's taldeak bosgarren laneko kantak, zuzenean, lehenengoz. Ekainaren 16an joko dute Arriolan, 22:30ean.

Kontatu dutenez, bosgarren lan hau Zaldibarren aurkeztea zen taldekideen asmoa, "herri horretan jo baitugu gure ibilbidean kontzerturik gehien, eta ezin hobeak izan baitira denak", Koldo Zubia taldekidearen berbetan. Egutegi kontuengatik, baina, ezin izan dute estreinaldia Zaldibarren egin, eta entseguak egiten dituzten lokalen gaineko Arriolako oholtzatik arituko dira, datorren barikuan.

2016ko urrian eman zuten amaitutzat *Libelula* aurreko diskoaren bira, eta lan berriaren sorkuntzan ibili dira ordutik.

Elorrion, ekainaren 16an, kale-ratu berri duten bosgarren disko-kantak eta taldearen ibilbidekoak izango dira entzungai.

Sei kantako diskoa da bari-kuan aurkeztuko duten hori. Sermond's taldearen sei kantuko hirugarren lana. "Gure moduko talde txiki batek disko bat argitaratzea ez da ekonomikoki errentagarria", azaldu du Zubiak, eta autoekoizpenaren bide-tik, disko laburrak dira aukera aproposena. Aitortu du, bestalde, gustuko ere badutela disko laburren formatua: "Diskoari bizitazuna eta taldeari nortasuna ematen dielako".

Hasiak dira Elorriokoaren ostean etorriko diren diskoaren aurkezpenerako hitzorduekin agenda betetzen. Musikazaleek kanta berriei harrera beroa egitea espero dute, eta zuzenean



Laukote moduan dihardu, azken urteetan, Sermond's Elorrioko taldeak.

aritzeko aukera ugari izatea aurrerantzean ere.

Ia hamarkada bat daramate taldeagaz, eta aitortu dute gero eta gehiago kostatzen zaiela astean bi egun lokalean bildu eta taldeagaz aurrera egitea. Baina, hasi zireneko "ilusioa eta gogoia" dituztela diote, tematiak izaten jarraitzen dutela, eta "alboan lo egiten duenaren" laguntzagaz, indartsu darraitela.

Eskualdeko ohiko lekuetan dute Sermond's-en bosgarren diskoa eskuragai musikazaleek; Durangoko eta Zaldibarko herriko tabernetan, Mañariko

U2n, Elorrioko Portalekuan, Atxondoko Ilargin eta Abadiño-ko Abarketeruenean. Izan ere, Koldo Zubiak dioen bezala, "jen-

deak talde txiki batek kaleratu duen diskoa erosteak ematen baitio zentzua diskoak fisikoki argitaratzeari".



SERMOND'S

2017

## Durangaldeko koplak txapelketa jai-giroan egingo dute, Mekoletan

Otxandioko Mekoleta auzoko jaietan egingo dute IV. Koplak txapelketa, bihar

**> BERTSOLARITZA** I. E.  
Durangaldeko bertso eskolak eta Arkotxe kultur elkarteak antolatuta, Otxandioko Mekoleta auzoko jaietan egingo dute Durangaldeko koplak txapelketaren laugarren edizioa, bihar, 22:00etan hasiko da saioa, Arkotxe elkartearen, eta hamabi bertsolari jardungo dira. Itxaro Juaristik eta Ainhoa Urienek emandako gaiekin arituko dira Eneko Abasolo *Abarkas*, Txaber Altube, Ander Aldazabal, Iruri Altzerreka, Miren Amuriza, Iker Apraiz, Aitor Bizkarra, Eneko Barrueta, Igor Elortza, Aitor Esteban, Igor Galartza eta Manu Goiogana bertsolariak, Xabi Aburruzaga eta Josu Zabala soinu-joleek lagunduta.

Txapelketaren aurreko hiru aldietan bezala, umore ona izango da Otxandioko biharko

saioko osagai nagusia, eta auzoko jaien barruan egingo denez, baita jai-giroa ere. Koplak txapelketako laugarren irabazlea nor den jakin ostean, musikariaren txanda izango da Mekoletan. Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldearen erro-meriagaz amaituko dute jaiak.

### Altzerreka, finalean

Durangaldeko koplak txapelketaren egun berean, bihar, Saran jokatu den Euskal Herriko eskolarteko finalean parte hartuko du Iruri Altzerreka Garai-ko gazteak. Joan zen zapatuan Markinan jokatu zen Bizkaiko finalean txapela jantzi eta nazio mailako finalerako txartela lortu zuen Berrizko bertso eskolan dabilen bertsolariak.

Durangaldeko hainbat bertsozale batu zen ekainaren 3an

Markinan ospatu zuten Bizkaiko bertsolaritzaren jaira, eta Altzerrekak irabazi zuen eskolarteko bat-bateko finala ez ezik, eskolarteko idatzizkoa eta taldekakoa ere jokatu zituzten.

Bihar Saran jokatu dute Euskal Herriko eskolarteko finalean parte hartuko du Iruri Altzerreka garaitarrak

200 gazte bizkaitar aritu ziren idatzizko finalean, eta Araitx Katarain mallabitarra izan zen DBHko 1. mailako irabazlea. Taldekako finalean Abadiño-ko eta Iurretako bertsolariek parte hartu zuten, Akerbeltzen Antxumak markinarrekin batera. Azken horiek irabazi zuten.



Hamabi bertsolarik hartuko dute parte biharko koplak txapelketan.



Iruri Altzerrekak jantzi zuen Bizkaiko eskolarteko txapela, Markinan.



# Iurreta antzezlez eta akrobataz beteko du XI. Kalez Kale jaialdiak

Ekainaren 15etik 18ra arte, zazpi emanaldi izango dira ikusgai Iurretan

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Iurretako kale eta plazak Euskal Herriko konpainien sorkuntzez beteko dituen Kalez Kale jaialdiaren XI. edizioa ospatuko dute datorren asteburuan. Ekainaren 15etik 18ra, kaleko zazpi ikuskizun izango dira gozagai, horietariko asko zirkuko osagaiak dituztenak.

Aktore lanak Katalunia eta Andaluzia aldera eraman aurretik umezaroa Iurretan igaro zuen Javier Garcia *Mimo*-k eskainiko du XI. Kalez Kaleko lehenengo emanaldia. *Eskobien atzetik* lana erakutsiko du, akrobaziak eta umorea uztartzen dituena. “Ikuskizun zoragarria”, Iurretako kaleko antzerki jaialdia antolatzen duen Oscar Castaño *Garbitxuren* berbetan.

Ekainaren 16an hiru emanaldi izango dira Iurretan: Shakti Olaizolak *Baldin bada* antzertuko du, 18:00etan, Askondon. Margolan bat osatuko du akrobaziaren bitartez. Zuhar Prest



Javier Garcia 'Mimo'-k eskainiko du jaialdiko lehenengo emanaldia.

## EGITARAUA

Ekainaren 15ean,  
• **18:00 Eskobien atzetik**, Dantzarin.

Ekainaren 16an,  
• **18:00 Baldin bada**, Askondon.  
• **19:00 Paradoxa**, Askondon.  
• **20:30 Crusoe**, plazan.

Ekainaren 17an,  
• **19:00 Ilusioa**, Askondon.  
• **20:30 Mr. Pichichi**, kaskoan.

Ekainaren 18an,  
• **13:30 Ilusioaren indarra**, Dantzari plazan.

taldeak *Paradoxa* eskainiko du, 19:00etan, Askondon. Azkenik, ekainaren 16ko eskaintza oparoa borobiltzeko, Markeliñe taldeko zornotzarrek *Crusoe* antzertuko dute, 20:30ean, plazan.

Bi emanaldi izango dira, bestalde, ekainaren 17an: Orzi akrobataren *Ilusioa*, eta Roberto Ferreroren *Mr. Pichichi*, eta Hodei magoak itxiko du aurtengo kaleko antzerki jaialdia, ekainaren 18an, 13:30ean.

Akrobaziaren bitartez margolan bat osatuko du Shakti Olaizolak, ekainaren 16an, 18:00etan, Askondon

Oscar Castaño *Garbitxu* jaialdiko zuzendariak, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatetako presidentetako eta Pili Jimenez kultura teknikariak aurkeztu dute Kalez Kale jaialdiaren aurtengo edizioa, asteon. Jimenezek azaldu duenez, eurria eginez gero Askondoko aterpera lekualdatuko dituzte emanaldiak —Markeliñeren kasuan, eurria eginez gero frontoian eskainiko dute *Crusoe*.

## GEURE DURANGALDEA

**AINHOA URIEN TELLETXE**

Ikaslea



### Nor zaren?

Nor zaren pentsatzen badaramazu denbora indefinitu bat, urteak bai, zenbat diren esatera ausartzen ez bazara ere. Denboraldi jakin batzuetan existentziaren atzaparrei arretaz begiratu diezu, eta hausnartu duzu izateari buruz, batez ere, atzaparrok azala ondo atximurkatu dizutenean. Bestetan, piztia gosetia erretiratu egiten izan da, eta orduan bere erpe zorrotzuen ferekaren bat edo beste baino ez zenuen nabari. “Hemen jarraitzen dut” esaten ari baltzaizu bezala.

Halako batean, “zer zara?” galdetu dizute, eta zu galdua sentitu zara, urteen joanean “nor zara?” galderan baino ez duzulako pentsatu. Galderaren hitz bat aldatzea nahikoa izan da ia konturatu gabe erraiak lehertzeko, ez zenuen erantzunik prestatuta galdera berriarentzat. Bat-batean ez dakizu zure izena nola izenpetu. Jendarteak exijitzen dizu, eta azkenean zuk ere zeure buruari exijitzen diozu zer bat edo beste. Zenbat eta gehiago luzatu zure curriculuma hobea, orduan eta identifikatuago, sailkatuago. Edozein komunikabide edo zera publikotan agertu behar duzula ere, zure izenaren azpian derrigor bete beharreko errotulu bat egongo da, eta halakoean hasiberri antza zaren, sortu zaizkizu hamaika buruko min, eta konturatu zara, amorrutik konturatu ere, zure krisi existentzialen atzapar artetik ateratako erantzunek ez dutela balio errotuluetan agertuko den identitate publikoaren piztiari iskin egiteko.

## Silbobreiren eskutik, txistu kontzertua, San Agustinen

Durangoko Euskal Jaiei barruko ekitaldia da

### > MUSIKA

I. E. Ekainaren 10ean, 20:00etan, Durangoko San Agustinen egingo dute Euskal Jaiei programazioaren barruko txistu kontzertua. Hiru obraren estreinaldiak ez ezik, dantza eta antzerki emanaldi bat ere izango da Durangoko kulturgunean ikusgai. Silbobrei elkarteko antolatzaileek aurreratu dutenez, bi parte izango ditu domekako kontzertu horrek. Lehenengo partean, txistuarien alderdi berritzaile-

na izango da entzungai: Silbobrei elkarteko antolatzen duen Durango Hiria lehiaketara aurkezturiko *Irriken paisaia*, *Oma* eta *Huskeria* obrak estreinatuko dituzte. Lehiaketan saririk jaso ez arren, epaimahaiari bereziak iruditu zaizkion konposizioak dira hirurak.

Emanaldiaren bigarren partean, Oinkari taldearen dantza garaikidea eta Hika taldearen antzerkia izango dira gozagai. *Sagartu* obra eskainiko dute.

## ‘Surflaria eta paradisia’ liburuaz arituko dira Hitzen

Ekainaren 15ean izango da hitzordua, Durangon

### > LITERATURA

I. E. Ekainaren 15ean, 19:00etan, Durangoko Hitz liburu-dendan izango da Iñigo Urdinaga idazlea, *Surflaria eta paradisia* bere liburuaren aurkezten. Idazle oriotarragaz batera, Txomin Magdalena durangarrak ere hartuko du parte ekitaldian. Salbera argitaletxeagaz, autoekoizpenaren bidez kaleraturiko liburu da *Surflaria eta paradisia*, egilearen berbetan, “sailkaezin bezain gozerra”.

Surfaz dihardu Urdinagak, eta liburuaren sinopsiko hau bezalako hainbat gogoeta egiten ditu, bertan: “Indigena hawaiiarrek mendeak zeramatzen olatuak hartu eta gozaten, baina hamarkada gutxi batzuetan zeharo eraldatuko zuten gizon zuriek surfa. Orain, taula hobeak ditugu, neoprenoak, auto eta errepideak, itsas-iragarpenak, hegazkinak... Ordainetan, porlanez bete ditugu hondartza eta itsasadarrak”.

**Anotación Nº7**  
DOOS colectivo

Ekainaren 9an  
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETXEA**  
EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**EKAINAK 16**  
21:30ean  
PUB QUIZ  
LEHIAKETA

**EKAINAK 17**  
21:00etan  
70eko HAMARKADAKO  
DIBERTSIO GAUA  
JAIALDIA

**EKAINAK 24**  
20:00etan  
NOE  
ETA ASIER  
DANTZA



**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Piano ikasketak egin zituen Bartolome Ertzilla musika eskolako oholtzatik jardungo da Julio Veiga musikaria (Durango, 1980), gaur, 20:00etan hasita. *Tempo* diskoa aurkeztuko du Veigak kontzertu horretan. Lana 2014an kaleratu zuen arren, gaur eskainiko ditu diskoko kanta guztiak lehenengoz zuzenean. “Nire asmoa ez zen diskoa kaleratu eta hiru urtera aurkeztea”, azaldu du musikari durangarrak, “baina horrela etorri dira gauzak, eta zenbait arrazoi direla-eta atzeratu egin behar izan dut aurkezpena”.

Julio Veiga: “Diskoa atzo atera banu besteko ilusioagaz hartuko dut gaurko kontzertua”

Bere lehenengo diskoa sortzea duela 20 urtetik eduki duela buruan adierazi du Veigak, eta, beraz, diskoa kaleratu duenetik aurkezpen kontzertura hiru urte igaro izanak ez duela gehiegi

## Ikasi zuen musika eskolan aurkeztuko du Julio Veiga pianistak ‘Tempo’ diskoa, gaur

Durangoako Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan arituko da Julio Veiga pianista durangarra



Bere lehenengo diskoko kanten moldaketak eta inprobisazioak eskainiko ditu Veigak gaurko kontzertuan.

arduratzen. “Diskoa atzo atera banu besteko ilusioagaz hartuko dut kontzertua”, dio.

Durangoako musika eskolan hamar urteagaz hasi zen, eta han

ikasi zuen 2000. urtean pianoko zortzigarren maila gaindutu arte. “Nire formazio musikaren oinarria han eskuratu nuen”, azpimarratu du. Jesus Egigu-

ren musikari durangarra izan zuen zortzi ikasturte horietan irakasle. “Ilusio handia egiten dit Durangoako musika eskolan aritzeak”, dio gaurko kontzer-

tuaz, “izan ere, han jo nuen azken aldia zortzigarren mailako azterketan izan zen”. Oso esker-tuta dago kontzertua antolatzen lagundu dioten guztiei. Gogoan du diskoko azkena den *Bagatela 1994* kanta bere bizitzan konposaturiko lehenengo kanta izan zela, eta Jesus Egigurenek kanta hori ikasturte amaiera bateko emanaldian jotzen utzi ziola.

**Inprobisatzaile**

Gitarragaz zein pianoagaz inprobisatzea gustatzen zaio Julio Veigari, eta, esan duenez, gaurko kontzertua ere inprobisatuz hasi gura du. “Aurrez egindako lan handia oinarri hartuta, burua libre utziz jardutea gustatzen zait”, esan du. Momentuan adierazi gura duenaren arabera, diskoko kanteak gaurko kontzertuan ere bestelako ukitua edukiko dutela aurreratu du.

## 3.000 bisitari baino gehiagogaz itxi dute Picassoren lanen erakusketa

Durangoako Museoan inoiz izan den erakusketarik jendetsuena izan da

**> ARTEA** I. E.

Martxoaren 30ean zabaldu zutenetik ekainaren 4an itxi duten arte, 3.000 bisitaritik gora hartu ditu Durangoako Arte eta Historia Museoan izan den *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketak. Museoko inoizko bisitari kopururik handiena izan da.

Datu horiexek jakitera emateko, prentsaurrekoa egin zuten Garazi Arrizabalaga Museoko zuzendariak eta Aitziber Irigoras Durangoako alkateak, atzo. *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketagaz, museoa eskualdeko erreferentziazko kultur gunea izan dela eta aurreran-

tzean bide horretatik jarraitu behar lukeela azpimarratu zuen Irigoras. Erakusketari lotuta proposaturiko askotariko

ekintzei eta bisita gidatuei herritarrek egindako harrera nabarmendu eta eskertu zuen Arrizabalagak.



Aitziber Irigoras eta Garazi Arrizabalaga, atzoko agerraldian.

## Etzi emango dituzte Julene Azpeitia sariak

**> LITERATURA** I. E.

Durangoako Udalak jakitera eman duenez, 203 ipuin, 54 olerki eta 57 bertso jaso dituzte, aurten, Julene Azpeitia literatur lehiaketan. Ekainaren 11n, 12:00etan, Plateruenean egingo duten ekitaldian banatuko dituzte sariak. Udaleko euskara sailaren webgunean argitaratu dute 1983tik antolatutako literatur lehiaketa irabazi duten lanen zerrenda. Herriko ikastetxeetan dabil-tzan gazteek eta Durangotik kanpo ikasten duten 18 urtez azpiko durangarrek parte hartu dute lehiaketan, eta baita Euskal Herriko hainbat txokotako idazle helduek ere.

## Boluda kabareta, kurtsoa umorez amaitzeko

**> ANTZERKIA** I. E.

La Noche Boluda ekimenaren ikasturte amaierako emanaldi berezia eskainiko dute ekainaren 15ean, Durangoako Sapuetxe Gaztetxean. Ikasturte honetako beste hitzorduetan bezala, 21:00etan hasiko den emanaldiaren aurretik, 20:00etan, zabalduko dute Gaztetxea, jan-edanerako tartea eskainiz. Honako artistek parte hartuko dute 21:00etan hasiko den emanaldian: Gorka Gansok, Shakti Olaizolak, Iasmina Balenciagak, Mr. Roberto Pichichik, Khuzayma dantzataldeak eta Argentinako eta Portugalgo kideak biltzen dituen Compañía Bipolar-ek.

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

50 urte  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión



# anboto.iragarki-laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarki-laburrak.com](http://www.anboto.iragarki-laburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### SALDU

**Aramalo.** Baseri etxea. Aukera asko. 360m2 ditu eta 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako Parke Naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

**Zornotza.** 3 logela, egongela 1, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatu berria. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 70 18 58.

##### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Pisukide bila nabil. Tabiran (Hizkuntza Eskola ondoan) dagoen etxe baterako. Tel.: 652-73 00 93.

**Durangaldea.** Apartamentua alokatzen da Vieux-Boucau herrian, Le Boucanier erresidentzian. Tel.: 675-71 93 63.

### PISUA KONPARTITU

#### PISUKIDE BILA

**Elorrio.** 32 urteko mutil euskalduna naiz eta pisukide bila nabil Elorrio erdigunean pisua konpartitzeko. Etxe handia da, hiru logela eta berogailuarekin. Interesa baduzu, hau da nire telefono zenbakia: 628 115 679, Unai.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

##### ETXEKO LANAK

**Durango.** Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere

burua. Tel.: 645 70 68 39.

**Durangaldea.** Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Goizez, pare bat orduz, lan egiteko prest. Tel.: 697-49 20 58 (Lourdes).

### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Udan Durangoko udalekueetan lanean arituko den neska euskaldunak bere burua eskaintzen du ekaineko eta uztailako arratsaldeetan umeak zaintzeko. Esperientzia handikoa. Eskerrik asko. Interesa izanez gero, bialdu whatsapp bat, mesedez, 695 706 227 zenbakira.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, ikasketekin eta esperientziarekin, umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67  
Tel.: 946-81 39 40

**Durangaldea.** Esperientziadun emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita ere etxe, taberna eta abarren garbiketarako. Kanpoko langile moduan, orduka, gauz edo asteburu eta jaiegunetan. Lanean berehala hasteko prest. Tel.: 663-37 51 55.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia dituena, Lehen Hezkuntza eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67  
Tel.: 946-81 39 40.

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketarako zein pertsonak zaintzen. Goizez, asteleheneetik barikura. Durangon zein Matienan. Tel.: 606-78 76 78.

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketarako edo nagusiak zaintzen. Tel.: 631-25 65 46.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Asteleheneetik barikura orduka edo barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 602-39 98 20.

**Durangaldea.** Goizez lan egiteko prest nago, orduka. Edozein arlotan. Erreferentziak ditut. Tel.: 622-85 73 99.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsuak nagusiak eta umeak zaintzeko eskaintzen du bere burua, baita etxeak garbitzeko ere. Orduka edo kanpoko langile moduan. Tel.: 631-69 80 95.

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketarako, pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Orduka, gauz zein kanpoko edo barneko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 631-02 90 87.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketarako ere. Orduka zein barneko langile moduan aritzeko prest dagoen eskarmentudun langilea naiz. Tel.: 685-85 79 95.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko (gauz, ospitalean, orduka) edo garbiketarako lanak egiteko prest. Tel.: 602-01 24 53.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketarako lan bila nabil. Kanpoko zein barneko langile moduan, edo orduka. Tel.: 689-27 36 64.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketarako lanetan. Kanpoko edo barneko langile moduan, zein orduka lan egiteko prest. Tel.: 603-79 27 62.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketarako lanetan. Kanpoko edo barneko langile moduan, zein orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-08 96 49.

**Durangaldea.** Esperientziadun emakumea haurrak zein nagusiak zaintzeko prest. Ingeleseko maila altua. Tel.: 632 39 74 84.

**Durangaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 612-43 30 71.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketarako. Goizez, arratsalde edo gauz lan egiteko prest. Tel.: 690-68 73 95.

### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Bulego batean lana bilatzen nabil. Esperientzia dut bulegoko lanetan. Tel.: 606-78 76 78, berehala lanean hasteko prest.

**Durangaldea.** Lanaldi osoan lan bila nabil, eraikuntza, mekanika zein soldaduran. Tel.: 631-92 51 08  
[cristian.blak@hotmail.com](mailto:cristian.blak@hotmail.com)

### LAN ESKAINTZAK

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Durangoko ikastetxe batean eskola orduetatik kanpo 7 urtetik 12 urtera bitarteko umei antzerki eskolak emateko monitore bat behar dugu. Profesionala edo antzerkigintza zaletua izan daiteke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakiak. Tel.: 615-70 19 08  
Tel.: 676-17 64 36

### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Drogeteniturrri aldizkariak koordinatzailea behar du. Baloratuko dena: euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea, kazetaritza ikasketak izatea, quark eta photoshop erabiltzen jakitea, Ermuakoa edo Mallabikoa izatea, eta lidergo eta

koordinazio gaitasuna izatea. Interesatuak [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera bidali beharko dute curriculumak, ekainaren 7a baino lehen.

### Denetarik

#### SALDU / EROSI

**Mahaiak eta aulkiak salgai.** Bilbon ikastegi bat itxi behar izan dugulako, ikasmahaiak, aulkiak eta eserlekuak saltzen ditugu. Batzuk erabili gabeak. Denak berriak, egoera onean. Bilbon daude jasotzeko. Prezio desberdinetan, denetariakoak eta asko daudelako. Banakakoak, binakakoak, ordenagailukoak... Negoziatu daiteke. Tel.: 605-70 55 01  
Elena

#### GALDU / AURKITU

**Diru-zorro gorri bat galdu dut.** Duela astebete inguru diru-zorro gorri bat galdu nuen Elorrio edo Durangon. Diru-zorroak (20x8) inguru neurtzen du. Norbaitek bilatu/bilatzen badu eskertuko nioke dituko balit. Tel.: 946-58 25 09-  
Tel.: 605-75 16 57.

#### EMAN / HARTU

**Katukumak opari.** 4 katukuma oparitzen dira. Politik eta ehiztari onak. Deitu edo idatzi whatsapp bidez. Tel.: 633 666 492.

### Ibilgailuak

#### AUTOAK

##### SALDU

**Volkswagen multiban t5 furgoneta salgai.** Volkswagen multiban t5 furgoneta salgai. 2005eko furgoneta, 128 zaldiko potentzia eta 179.000 kilometro. Hainbat estra aukeran. Kolore grisa. Tel.: 634-42 17 34

### Familia - etxea

#### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

##### SALDU

**Ume-kotxea eta osagarriak.** Honako hauek salgai ditut: casual-play ume-kotxea (kapazua eta aulkia); kotxean erabiltzeko haurrentzako aulkiak (0-18 kg); mcclaren aulkia; lehen hilabeteetan erabiltzeko haur parkea. Prezio interesgarria. Tel.: 665 70 75 35.



## LAN ESKAINTZA BERBARO ELKARTEA

### BERBARO ELKARTEAK LANGILE BAT BEHAR DU, HAUR ETA GAZTE ARLOKO TEKNIKARIA, IRAILEAN LANEAN HASTEKO, LANALDI OSOAN

**Eskatzen dugu:** euskara maila ona, Durangaldean bizitzea, gidabaimena eta autoa edukitzea, haur eta gazte arloa ezagutzea eta arlo horretan lanean aritu izana, proiektuak kudeatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta lan egiteko gogoia eta motibazioa.

**Curriculumak eta motibazio gutuna:** [berbaro@berbaro.eus](mailto:berbaro@berbaro.eus) helbidera bidali.

**Curriculumak aurkezteko azken eguna:** ekainak 20.



Jone Aizpurua Zuazua (Durango, 1977) eta Serafin Bereziartua Zubizarreta (Iurreta, 1967) | Mugarra TT |

## “Urte asko daramatzagu triatloian, eta esperientziak garrantzia du lorpenak eskuratzekoan”

Mugarra Triatloi Taldea 2003an sortu zuen Serafin Bereziartua ‘Txela’-k; Jone Aizpurua sortu zenetik dabil taldean

**> KIROLA** Maialen Zuazubiskar Duela hilabete inguru Iruñean jokaturako Espainiako distantzia erdiko triatloian Jone Aizpurua Espainiako Txapelketa eskuratu zuen 40-44 urte bitarteko kategorian. Serafin Bereziartua ‘Txela’, berriz, txapel-dunorde gelditu zen 50-54 urteko mailan.

Espainiako txapeldun eta txapeldunorde gelditu zinetetik hilabete inguru pasatu da. Ezusteko garaipena izan zen?

**Jone Aizpurua:** Nirea, bai. Ez nuen espero txapelketa irabaztea eta podiumera igotzea. Gainera, momentuan bertan ez nintzen kontziente izan lortutakoaz, eta herrira etorritakoan igarri nuen zer lortu nuen.

**‘Txela’ Bereziartua:** Nik ere ez nuen espero. Espainiako Txapelketa batean maila izugarria egoten da. Lasterketan zehar banekien lasterketa ona egiten nabilela, nahiz eta igeri egiten ez nintzen oso ondo aritu. Hel-mugara sartu eta epaileak bigarren egin nuela esan zidanean, flipatu egin nuen.

**Urteetako lanaren emaitza dela esan daiteke?**

**T.B.:** Dudarik barik. Urteetako lanak emandako fruitua da.

**J.A.:** Guk urte asko daramatzagu triatloien mundu honetan, eta esperientziak bere garrantzia izaten du lorpenak eskuratzeko orduan. Hala ere, aitortu behar dut garaipen honi baino garrantzi gehiago ematen diodala Ironman bat bukatzeari.

**Hori ere lortu duzue, biok.**

**T.B.:** Bai, biok egin ditugu Ironmanak. Jonek dioen bezala, Ironman bat bukatzean edukitzen den sentsazio hori izugarria da. Hala ere, egia da probak oso ezberdinak direla.

**Aspaldidanik talde berean zabalitate, Mugarran.**

**T.B.:** Taldea sortu zenetik gabilta biok Mugarran.

**J.A.:** Txelak 2004an taldea sortu eta urtebetera hasi nintzen ni taldean. Ordura arte ez nuen inoiz triatloirik egin. Eskalatzan ibiltzen nintzen. Baina



“**Gu ez gara profesionalak; beraz, beste lehentasun batzuk ditugu**”

biok Durangoko igerilekuan lanean genbiltzanez, baita gaur egun ere, elkarren kontra igeri egiten hasi, eta triatloiak egiten bukatu nuen.

**Talde berean ibilita, eta toki berean lan eginda, elkarrengaz entrenatzeko aprobetxatzen duzue?**

**T.B.:** Durango Kirolak elkarrengaz lan egiten dugu, eta askotan aprobetxatzen dugu igerilekuan elkarrengaz entrenatzeko.

**J.A.:** Sarritan aritzen gara elkarren kontra. Horrela, aldamenekoa zirikatzea lortzen dugu, eta norberak bere gorputzari ere gehiago eskatzea.

**T.B.:** Horrez gain, entrenatzailer bera daukagu, eta elkarrengaz lan egiten dugula jakinda, sarritan entrenamendu antzerakoak jartzen dizkigu, batera ibili gaitzen.

**Lan egin, familiagaz egon... Nola ateratzen duzue entrenatzeko denbora?**

**J.A.:** Gauzak hemendik eta handik mugituta eta ingurukoan laguntzagaz, denerako denbora ateratzea lortzen da. Gainera, gure entrenatzaileak badauki lehenengo familia dela, ondoren lana, eta, azkenik, entrenamenduak. Hala ere, batzuetan 06:30ean esnatu izan naiz, korrika egiten joateko.

**J.A.:** Gu ez gara profesionalak; beraz, egunerokoan beste lehentasun batzuk ditugu. Hala ere, gura izanez gero, denetarako ateratzen da denbora.

**Horrenbeste ordu elkarrengaz pasatuta, oso ondo ezagutuko duzue elkar. Aldamenekoa zein dohain nabarmenduko zenukete?**

**J.A.:** Kirol arloan hainbat gaitasun ditu Txelak. Baina, bere dohainik handiena jendea motibatze duen ahalmena dela esango nuke. Niri asko gustatzen zait beragaz entrenatzea, beti baitago animoak ematen eta laguntzen.

**T.B.:** Joneren gaitasunik handiena, berriz, duen konstantzia dela esango nuke. Ama izan zen, eta triatloiak betiko alde batera

“**Haurrek triatloietan disfrutatzea eta ondo pasatzea da garrantzitsua**”

utzi beharrean, berriz ere apurka-apurka entrenatzen hasi, eta topera dabil.

**Mugarrak harrobi oso garrantzitsua du gaur egun.**

**T.B.:** Taldearen helburua harrobia indartzea izan da beti, eta lortu dugula uste dugu. Taldea sortu eta urte batzuetara triatloi eskola bat sortu genuen, eta indarra hartzen joan da apurka. Egun, Euskal Herrian talde gutxi daude gazte mailan gurearen besteko harrobia dutenak.

**J.A.:** Gazteak etorkizuna dira eta garrantzitsua da harrobia sendotzea. Gainera, eskolako umeak oso pozik dabilta, eta hori ezinbestekoa da. Iñigo Lariz entrenatzaileak umeak gustura aritzea lortu du.

**T.B.:** Iñigok umeekin egiten duen lana ikaragarria da.

**Durangaldean nolako indarra dauka triatloiak?**

**J.A.:** Egun indar dezente duela esango nuke. Gazte nahiko dabilta triatloietan. Gainera, gero eta neska gehiago ikusten ditugu, eta hori pozgarria da.

**T.B.:** Lehen, jendea beste kirol batzuetatik triatloira pasatzen zen. Orain, berriz, Durangaldean ume triatleta asko ditugu.

**Seme-alabak Mugarrako Triatloi eskolan dituzue. Ze aholku ematen dizkiezue gaztetxoei?**

**J.A.:** Nik semea daukat Durangoko triatloi eskolan, eta Txelak semea eta alaba. Disfrutatzeke esango nieke.

**T.B.:** Ondo pasatzea da garrantzitsua. Pauli, semea, sarritan esan izan diot hankak lurrean izan behar dituela, eta apurka-apurka aurrera egitea dela garrantzitsua.

**Paul denboraldi honetan maila altua ematen dabil gazte mailan.**

**T.B.:** Egia da, bai. Aurten maila oso ona ematen dabil, eta ikusten da baduela ahalmena. Oso harro nago lortzen dabilenagaz, eta lasterketan bera aurrean ikustea izugarria da.



# Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur gauean Mallabian

Iazko finala galdu ostean, Joseba Sarasa gipuzkoarrak txapela janzteko bigarren aukera izango du



Otsailetik hona, afizionatu mailako 24 pilotaririk onenetakoak batu ditu Mallabiko txapelketak.

## > PILOTA J. D.

Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak gaur jokatuko dituzte, 19:30ean, Mallabiko pilotalekuan. Ez dago faborito

argirik, ez lau t'erdikoan, ez binakakoan.

Binaka Iraitz Zubizarretak (Ataun, 1999) eta Iker Mariezkurrenak (Berriozar, 1996) Adrian

Pradoren (Najera, 1995) eta Joseba Sarasaren (Eltzaburu, 1996) kontra jokatuko dute. Gipuzkoar bi eta arabar eta nafar bana. Bizkaitarrik ez aurtengo

finalean. Sarasak bigarren finala izango du jarraian. Iaz galdu egin zuen Peru Labakagaz bikotea osatuz, Andoni Ugaldere eta Iñigo Martinezen kontra (11-22). Aurten esperientzia handiko aurrelaria egokitu zaio finalean. Pradok urtetxo batzuk daramatza afizionatuetan, eta azeri zaharra da bere gaztetasunean. Bikote orekatua osatzen dute. Baina aurkariak ez dira edozelakoak. Mariezkurrena afizionatuetako promesa bizia da eta esku dotore bi ditu. Zubizarreta, lauretan gazteena, abila eta bizia da.

Lau t'erdikoan Unai Matak (Mendillorri, Nafarroa 2000) eta Patxi Etxegaraik (Aiherra, Ipar Euskal Herria, 1998) neurtuko dituzte indarrak. Etxegaraik kolpe gehiago du, eta Mata oso pilotari borrokalaria da.

## ADITUAREN TXOKOA

**UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE**

Saskibaloia



### Ametx Zornotza

Bukatu da denboraldia. Itzela, ederra! Baita ere zaila, gogorra, borrokatua, landua, emozionantea,.... Berbak eta sentipenak etengabe datozkit burura eta gorputzera, azken asteetan Mikel Garitaonandiak zuzentzen duen taldeak egindako lanari buruz pentsatzen hastean.

Denboraldi gogorra izan da. Lesioek zaildu egin dute taldearen lana, erabat. Alde horretatik, momentu latzak pasatu ditu taldeak. Ondo hasi arren, partidu asko galdu zituzten, eta sailkapenaren beheko postuetan ere egon zen. Taldeak lan asko egiten zuen partidu horietan, baina ez ziren emaitzak heltzen. Baina burua galdu beharrean, lanean setati jarraitu zuten, eta lesionatuak errekuperatzen zihozten heinean, garaipenak lortzen hasi ziren. Helburua, "play-off"ak jokatzeko sailkapena lortzea. Behera begira egon beharrean, gora begira jartzea. Eta lortu zen. Hortik aurrerakoa, denok daukagu buruan eta bihotzean.

Labur esanda, urte ederra izan da. Zaila eta gogorra. Baina berriro diot: Mikel Garitaonandiak zuzendu duen taldeak lortutakoa itzela izan da. Aurrerapauso handia eman du klubak. Ezin dut ahaztu Joxe Etxebarria, klubeko presidentea. Larrean jaso zituen txalo zaparrada eta omenaldia. Benetan mezezikoa!

Besterik ez daukat idazteko. Gaur arlo tekniko-taktikotik ez daukat buruan ezer. Bakarrik poztasuna eta eskerak ematea.

Eskerrik asko!

## Eskualdeko ordezkariak ez herri artekoaren azken txanpan

### > PILOTA J. D.

Zornotzak agur esan dio Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketari. Final-laurdenetan Markinak kanporatu du. Zornotza herri artekoan Durangaldetik geratzen zen ordezkari bakarra zen. Mallabiak, Abadiñok, Elorriok eta Atxondok ezin izan zuten lehenengo kanporaketa igaro, eta Iurreta bigarrenean kanporatu zuten.

Aurtengo finalerdiak hone la geratzen dira: Markina-Zeanuri eta Dima-Usansolo. Bizkaiko federazioak iragarri duenez, aurtengo finalak Zornotzan jokatuko dira. Eguna eta ordua zehazteke daude.

## Zornotzak zilarrezko ligan jarraituko du urrezko taldeagaz eta zaleekin

Valladoliden kanporaketako partidu biak galduta, igoerarik barik geratu dira

### > SASKIBALOIA J. D.

Ametx Zornotzak ez du urrezko ligara igotzerik lortu. Valladoliden jokatutako partidu biak galduta, ametsa bat-batean de-

sagertu zen. Ilusioa di-da itzali duen kolpea izan den arren, zornotzarrek harro egoteko arrazoiak dituzte. Alde batetik, taldeak erakutsi duen norta-

sun dago. Inoren kalkuluetan sartzen ez zenean, igoera fasera sailkatzea lortu zuten, ligako azken txanpa eder bat eginda. Kanporaketetako hainbat partidutan ere sen irabaztailea dutela erakutsi dute, galduta zituditen neurketak azken unean euren aldera ekarrita.

Bestetik, zaleen artean piztu duen ilusioa dago. "Asteotan saskibaloia arnastu da herrian, eta horixe genuen helburu", adierazi zuen Joxe Etxebarria klubeko presidentea. Larrea lepo bete da partidu denetan, eta kanpoko partiduetan ere zale asko mugitu da.



Valladoliden kontrako partiduan zaleak Ametx Zornotza animatzen.

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotezia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**





# Eskarmentua gaztetasunaren kontra zesta-puntako finaletan

Antxon Alberdi eta Roberto Lekue favorito dira bihar txapela janzteko

**> ZESTA-PUNTA** Joseba Derteano Euskal Jaiak zesta-punta txapelketako finalek bi belaunalditako bikoteen arteko lehia eskainiko dute, zapatuan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Beteranoak favorito dira, baina gazteek txapelketa ederra osatu dute, eta merezita egin dute finalera arteko bidea.

Antxon Alberdi eta Roberto Lekue berriatuarrak eskarmentu handiko bikotea osatzen dute. Urte asko daramatzate kantxetan, eta Ameriketara jokatuak ere badira: Lekue hainbat urtez ibili zen Danian (Florida), eta Alberdik lau hile eman zituen, besteak beste, Orlandon (Florida).

Gazteen bikotea Gotzon Mandiolak eta Jon Ibarluzeak osatzen dute. Biak markinarrak dira. 19 eta 20 urtegar, zesta

-puntako promesetako bi dira. Esperientzia falta adoreagaz eta ausardiagaz orekatzen dute.

Horregatik, Alberdi ez da fidatzen. "Dugun eskarmentuagatik Lekue eta biok gara favorito, baina finaletan, eta gazteen kontra, sekula ez da jakiten zer

Alberdi: "Eskarmentuagatik favorito gara, baina gazteen kontra ez da jakiten zer gerta daitekeen"


Gazteek 19 eta 20 urte dituzte. Alberdi eta Lekue, berriz, Floridan (AEB) jokatuak dira

gertatu daitekeen", adierazi du. Irabaziz gero, hirugarren txapela jantziko luke. Iaz Txomin Bereziartuak eta biek irabazi zuten.

Finalaren aurretik emakumeen arteko zesta-punta partidua antolatuko dute. Maite Ortiz de Mendibil gasteiztarrak eta Izaro Arbe markinarrak osatuko dute bikote bat. Bigarrena mistoa izango da: Eneritz Lizardi mutrikuarrak Amets Lekuberegaz jokatu du.

## Pilotako finalerdiak

Euskal Jaiak egitarauaren barruan, Peter-en oroimenezko esku pilota txapelketako finalerdiak jokatu dituzte gaur, 19:30ean, Durangoko pilotalekuan. Irabazleen arteko finala ekainaren 17ko zapatuan jokatuko dute.



Antxon Alberdi hirugarren txapelaren bila irtengo da.

## Garciak Bolivia taldea salatzeko bidea hasi du

Proiektu serioa zirudiena amesgaizto bihurtu da

### > TXIRRINDULARITZA J.D.

Iaz Bolivia taldean hasi zuen abentura txarto amaitu da Egoitz Garciarentzat (Atxondo, 1986). Bai berari eta bai taldekideei ere soldaten dirua zor diete, eta taldearen sorrerari buruz jakin duenetik, "gezurretan" aritu zaizkiela konturatu da. Ondorioz, taldea utzi gura du, baina eskaintzen diotena oso gutxi da zor diotenaren aldean. Horregatik, "salaketa jartzeko prozedura hasi" duela esan du.

Oraingoa ez da antzerako depezioa hartzen duen lehenengo aldia. Al Marakeb Cycling kontinental taldean aseguruirik barik lehiatzera behartu gura

izan zuten, eta ez zuen onartu. "Berriro horrelakorik ez", errepikatu zion bere buruari, baina Bolivia taldearen etengabeko dei eta erreguei baiezkoa eman zien. Proiektu serioa zirudien eta "sinesgarritasuna" eman ziola adierazi du.

Dirua Gobernuak jarriko zuela eta diru dezente zela esan zioten. Kontinental mailako taldeetik hasita profesioaletakoa sortzea zela helburua. Gerora jakin du ez zela egia.

Aurten "ezinezko" ikusten du beste talde bat aurkitzea. Iazko esperientziak erakutsi zion horrelako prozesuek luze jotzen dutela.

## Arbeok urrea kolokoratu du Euskadiko txapelketan

3.000 metroko oztopodun proban onena izan da

### > ATLETISMOA J.D.

18 urte baino ez, eta June Arbeo durangarrak nagusien mailan urrezko domina bat kolokoratu du Euskadiko txapelketan, 3.000 metroko oztopodun proban. Gainera, Durangaldea Running taldeko gazteak Espai-



June Arbeo durangarra.

niako txapelketera sailkatzea lortu du. Bere taldekide Nora Narbaiza zaldibartarra seigarren sailkatu zen 800 metrokoan, eta 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan arituko da.

Durangaldeko taldeetako beste hainbat atleta ere nabarmendu ziren Euskadiko txapelketan. Azpimarratzeko lana egin zuten, besteak beste, Ibone Pinedok (Bidezabal) 100 metrokoan, Ander Garciandiak (Bidezabal) 800 metrokoan, Itxaso Kumik (Sekulebedarra) jauzi hirukoitzean, Begoña Martinezek (Durango Kirol Taldea) peritika-jauzian eta Joseba Ogizak (DKT) xabalina-jaurtiketan.

## Amorebietak ofizial egin du Etxeberriaren fitxaketa

### > FUTBOLA J. D.

Joseba Etxeberria (Elgoibar, 1977) izango da Amorebieta futbol klubeko entrenatzailea 2017-2018ko denboraldian. Urtebeterako kontratua sinatu du. Aurten Baskonia taldea entrenatu du, Athleticen bigarren filiala. Amorebieta futbol taldeari buruz duen ezagupena eta harrobiagaz lan egiteko duen nahia azpimarratu ditu Maria Eugenia Etxebarria klubeko presidentek Athleticetik jokalaria ohia fitxatzeko arrazoen artean.

Bestalde, kirol zuzendari kargua Asier Goiria Amorebietako jokalaria ohiak beteko duela ere jakinarazi dute.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Bulegorako ziguilak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**TRAÑA-MATIENAN TXOKO BATEKO BAZKIDE IZAN GURA ZENUKE?**

**ORAINTXE DUZU AUKERA!**

**LANOSTE TXOKOAN HERRIAN BERTAN**

Xehetasunak behar izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara.  
Tel.: 625 700 486

ABADIÑO



# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Ekainaren 10ean, 21:00etan, Durangoko Andra Marian**

## Nevadah + Zain + 341

Durangoko Euskal Jaiei egitarauaren barruan kontzertua eskainiko dute Nevadah, Zain eta 341 musika taldeek, bihar gauean. Andra Mariko elizpean izango da Durangaldeko musikariekin hitzordua.



### Euskal Jaiak

#### :: DURANGO

EKAINAREN 9an

**19:15ean**, Durangoko txalaparta, alboka, trikitixa eta pandero eskolen eta Sugarri fanfariaren kalejira.

**19:30ean**, VIII. Peter Memoriala esku pilota jaialdiaren finalerdiak, pilotalekuan.

EKAINAREN 10ean

**09:10ean**, Durangaldeko ermitetatik ibilaldia, Madalenako autobus geltokitik irtenda.

**18:00etan**, XVI. zesta-punta txapelketako finala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**20:00etan**, Durango Hiria txistu lanen estreinaldia, San Agustinen.

**21:00etan**, Nevadah + 341 + Zain taldeen kontzertua, Andra Marian.

EKAINAREN 11n

**12:00etan**, Julene Azpeitia lehiaketako sari banaketa, Plateruenean.



### Antzerkia

#### :: DURANGO

EKAINAREN 9an

**20:00etan**, 'Anotación N°9', San Agustinen.

EKAINAREN 15ean

**21:00etan**, 'Boluda Kabareta', Sapuetxen.

#### :: ELORRIO

EKAINAREN 9an

**22:00etan**, 'Atte hil aurretik', Arriolan.

#### :: IURRETA

EKAINAREN 15ean

**18:00etan**, 'Tras la escoba', Askondon.

EKAINAREN 16an

**18:00etan**, 'Baldinbada', Dantzari plazan.

**19:00etan**, 'Zuhar prest', Askondon.

**20:30ean**, 'Crusoe', Dantzari plazan.



### Jaiak

#### :: BERRIZ (Legaño)

EKAINAREN 9an

**20:00etan**, igel txapelketa.

**21:00etan**, parrilada.

**22:00etan**, Bad limit + The enfermos.

EKAINAREN 10ean

**13:00etan**, kanta mexikarrak.

**14:00etan**, VII. Korpion memoriala.

**16:30ean**, umeen jolasak.

**17:30ean**, umeentzako txokolate jana.

**18:30ean**, 'Spazi...O' zirku garaikideko ikuskizuna.

**20:00etan**, herri kantak eta bilbainadak.

**22:00etan**, munduko janari dastaketa.

**22:30ean**, erromeria Oharkabe taldeagaz.

EKAINAREN 11n

**11:30ean**, Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen emanaldia. Jarraian, kulturarteko topaketak.

**13:00etan**, Senegalgo dantzak.

#### :: OTXANDIO (Mekoleta)

EKAINAREN 9an

**21:00etan**, txupina eta afari herrikoia.

**23:30ean**, Liher + Larregi kontzertuan, Ondoren, DJa.

EKAINAREN 10ean

**17:30ean**, Urduri dantza taldea.

**18:30ean**, Ikusi Makusi taldea.

**20:00etan**, triki burduntzia Xabi eta Josebagaz.

**22:00etan**, Durangaldeko IV. Kopla txapelketa. Ondoren, Txapito Guzman eta Ibarako langostinuk, Arkotxe elkarte.

EKAINAREN 11n

**09:00etan**, San Bernabera igoera.

**13:00etan**, meza eta luntxa.

**17:30ean**, briska eta mus txapelketak.



### Berbaldia

#### :: ABADIÑO

EKAINAREN 15ean

**19:00etan**, Sonia San Jose arkeologoaren 'Burdin Aroko herri harresituak Euskal Herrian' berbaldia, Txanporta kultur etxean.

#### :: IURRETA

EKAINAREN 9an

**19:00etan**, 'Emakumea eta kartzela', Ibarretxen.



### Jaialdia

#### :: BERRIZ

EKAINAREN 11n

**18:00etan**, Zaindu maite duzun hori sormen jaialdia, Kultur Etxean.



### Musika

#### :: ELORRIO

EKAINAREN 16an

**22:30ean**, Bultz! + Sermond's, Arriolan.

#### :: ZALDIBAR

EKAINAREN 15ean

**21:00etan**, Jon Gurrutxaga & Keu Agirretxea, Gaztetxean. V. Gari Rock.

EKAINAREN 16an

**22:00etan**, Crap + La Gripe, Gaztetxean. V. Gari Rock.



### Dantza

#### :: ELORRIO

EKAINAREN 10ean

**19:00etan**, Aires del Moral folklore-taldea, Arriolan.



### ZINEMA

#### :: DURANGO ZUGAZA

##### La momia

. barikua 9: 19:30-22:00  
. zapatua 10: 20:00-22:00  
. domeka 11: 16:15-18:30-21:00  
. astelehena 12: 18:30-21:00  
. martitzena 13: 20:00  
. eguaztena 14: 20:00

##### Norman: el hombre que conseguía todo

. barikua 9: 19:30-22:00  
. zapatua 10: 19:00-22:00  
. domeka 11: 20:30  
. astelehena 12: 18:30-21:00  
. martitzena 13: 20:00  
. eguaztena 14: 20:00

##### La promesa

. barikua 9: 22:00  
. zapatua 10: 19:00-22:00  
. domeka 11: 18:30-21:00  
. astelehena 12: 18:30-21:00  
. martitzena 13: 20:00

##### Capitán calzoncillos

. barikua 9: 19:30  
. zapatua 10: 17:00-18:00  
. domeka 11: 16:30-18:30

##### Nur eta herensugearen tenplua

. zapatua 11: 16:30  
. domeka 12: 17:00

#### :: ZORNOTZA ARETOA

##### La momia

. zapatua 10: 19:30-22:00  
. domeka 11: 20:00  
. astelehena 12: 20:15

## EKAINEN AGENDA



<b>9</b>	<b>SARE HITZALDIA</b> IBARRETXE KULTUR ETXEAN <b>19:00</b> "Emakumea eta kartzela."
<b>13</b>	<b>EUSKARA ETA GAZTELANIAKO IRAKURKETA KLUBAK</b> <b>17:30</b> Gabriel Aresti / Adur Larrea. <b>19:00</b> ¿Podemos hablar de algo más agradable? / Roz Chast.
<b>14</b>	<b>NAGUSIENTZAKO IRAKURKETA KLUBA</b> <b>10:00-11:00</b> Nahid, mi hermana afgana / Anna Tortajada
<b>16</b>	<b>DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA</b> ABADIÑOKO PROBALEKUA <b>11:30</b> Durangaldeko Persona Nagusien gimnasia topaketa.
<b>21</b>	<b>NAGUSIENTZAKO XL IRAKURKETA KLUBA</b> <b>10:00-11:00</b> Nahid, mi hermana afgana / Anna Tortajada <b>NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA</b> <b>10:30</b> Umeen danborrada. Jarraian, kalejira "kalean txaranga" taldeagaz. <b>19:00</b> Musika kaskoan "Blues de luxe" <b>MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA</b> <b>17:00-20:00</b> Azal minbiziaren Prebentzio Kanpaina.
<b>23</b>	<b>SAN JUAN BEZPERA</b> <b>16:30-19:30</b> Puzgarriak Askondon. Euria eginez gero Olaburu frontoian. <b>19:30-20:00</b> Jaietako kartel aukeraketa. <b>20:00</b> Aitte San Migel plazan dantza ikuskizuna. Ondoren, afari herrikoia. <b>21:00</b> Erromeria Luhartz taldeagaz. <b>22:30</b> San Juan sua. Ohiturazko abestia kantatuko da.



**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 9**  
09:00-09:00

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

**ZAPATUA, 10**  
09:00-09:00

**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**De Diego**  
Intxaurreto 22. - Durango

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango

**Unamuzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño

**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz

**Jaio-Olabarrieta**  
Errekakale 6 - Elorrio

**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**DOMEKA, 11**  
09:00-09:00

**De Diego**  
Intxaurreto 22. - Durango

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 12**  
09:00-09:00

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 13**  
09:00-09:00

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 14**  
09:00-09:00

**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 15**  
09:00-09:00

**Unamuzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**> ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org  
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



**Ermodo, 11 · DURANGO**  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com

**f Gozatu Gozategia**

Zorionak, **Aretx (679 znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Luzia**, zure laugarren urtebetetzean. Egun polita eta alai pasa! Senide guztien partez.



> Etxe azpian kafetegia daukazu, beraz, ez zaitez igo hainbeste kafea hartzera. Zorionak familia guztiaren partez.



> Beti bezain jator jarraitzen dute **Ikerrek** eta **Josebak**. Zorionak zuen familiaren partez.



> Zorionak, **Asier**, etxeko guztien partez!



> Zorionak, **Nare!** Arin pasa dira bi urtetxo hauek! Artista bat eginda zaude! Egun ederra pasa maite zaituen pertsonekin! Topera gozatu zapatuko txokolatadan! Muxu piloa



> Zorionak, **Enara**, etxeko guztien partez. Mosu handi-handi bat!



> Zorionak **Jakes!** Hirugarren atzar martxoa ateratzeko nahiko lan! Mosu potoloa eta besarkada maite zaitugun guztien partez.



> Zorionak, **Ekhi!** Moxu handi piloa maite zaitugun danon partez!



> **Ikerrek** 9 urte egin zituen astelehenean. Musu potolo bat etxeko guztien partez. Zorionak, krak!



> Eubako jubilatuek eta laguntzaileak beti umore onez. Mosu handi bana

**> EGURALDIA**

ZAPATUA	32° / 17°	☀️	MARTITZENA	26° / 15°	☁️
DOMEKA	29° / 16°	☀️	EGUAZTENA	26° / 15°	☁️
ASTELEHENA	23° / 15°	☁️	EGUENA	28° / 16°	☁️



## Anbotorenlagunak

AKIk emandako hidrogarbigailua (igerilekuak garbitzekoa) zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!



Electrodomésticos Izarbek emandako presio-eltzearen irabazlea:

PATXI ROMAN

ZORIONAK!

Anboto Komunikabideak | @anboto | @anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 - www.anboto.org - lagunak@anboto.org



## “Badakit dendaren falta sumatuko dudala, saldu eta erosteko baino gehiago da-eta”

Abuztuan utziko du Urtxintxa Esti Zurikarai; beste durangar batzuek hartuko dute dendaren ardura

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Abuztuan utziko du Esti Zurikarai Urtxintxa. Familiako umeei aukeratutako izena da. “Zerrenda bat egiteko esan nien. Gogoan dut ‘Txorokil’ izena ere”. 41 urte dira denda ireki zuela eta, orain, lekukoa emateko ordua heldu zaio. “Plazer handia” izan du.

**Asko aldatu dira jostailuak?**  
Asko hobetu da itxura, tanke-ra. Hala ere, lehen ere aitak eta amak alboko arotzeriatik ekarritako takoekin ere jolasten ziren umeak. Oraingo hau hori baino apur bat landuagoa da. Guk amak jositako andrakilak erabiltzen genituen. Alde horretatik, gurean ez dira horrenbeste aldatu.

**Nola ikusten duzu egungo jostailuen industria handia?**  
Ez zait gustatzen. Umeei barren guztia xurgatzen die,

gauza gutxi emateko. Gainera, engainatu egiten dituzte, ez den zerbait izango dutela sinestaraiz. Momentuko jostailuak dira asko, itxura itzela dutenak, argia... baina segituan aspertzen dira gero, ez diete ezer ematen. Aldiz, salto egiteko sokak, kanikek, zibak, panpinek, sukaldarako gauzek... hor jarraitzen dute. Ekin eta ekin ari dira. Dena den, ez da erraza. Orain dela urte batzuk baino gehiago erakutsi eta landu behar da jostailuak saltzeko.

**Bestelako jostailuen aldeko bide horri eutsi diozu?**  
Gurean egurrezko jostailuak dira asko. Panpinak ere ez dira momentukoak, ez dute negarrik egiten, ez dute mekanismorik. Hauekin irudimen eta sormen handiagoa jarri behar dute, ez dizkiete abentura guztiak eginda ematen, umeei baduten arren gaitasunik abentura berriak asmatzeko. Jostailu hauek beste indar batzuk marxtan jartzea eskatzen diete.

**Lehen eta orain, beti arrakasta izan duen jostailurik bada?**  
Duela 44 urte ezagutu nuen *Picafort*: 8-10 zulo dituen oholak da, alboetan euskarri bana duena. Mailuagaz joz, zilindro batzuk sartu behar ziren zuloetatik. Gero, buelta eman eta berriz ekin. Urte batzuk dira berritua hasi dela saltzen, asko. Beste bat, bata bestaren barruan sartzen diren tamaina askotariko kuboena. Ez dakit zer guran nahasten gara sarri, eta gauzarik oinarritzen ematen dituzte orduak umeei.

**Generoagaz lotuta pausorik eman da?**  
Gutxi. Badago neskentzako edo mutilentzako jostailurik? Ez dut horren argi ikusten. Panpinak, sukaldako gauzak... zergatik izan behar dira neskentzat? Argiñano, Subijana, Arzak... gizonentzako ikusten ditugu telebistan, eta denean, baina ez dago zereginik.

Gazteekin, urte batzuetan, hori aldatu egingo zela uste nuen, baina ez. Azken urteetan atzera goazelakoan nago. Batzuei pentsaezina zaie aukerak hartzea mutilentzat, are gehiago arrosa bada! Edo hartz arrosa!

**Umeak aldatu egin dira?**  
Askorik ez. Baina ereduak behar dituzte, horiekin hazten dira. Telebistan, kalean... ere gauza asko xurgatu ditzakete.

**Teknologiak izan du eraginik?**  
Pentsatu nuen mahai-jokoak, karta-jokoak, logika-jokoak, eskulanak... saltzeari utziko geniola, baina ez, asko saltzen dira. Ematen du denerako lekua dagoela. Hala ere, baliteke jolasteko moduan eragin izana. Pasibotasun gehiago ote dagoen nago, baina gizartea ere aldatu da, eta horrek eragin du.

**Jubilatzera zoaz. Nolako sentazioa duzu?**  
Oso ona. Urte batzuk izan dira, bai. Berba bitan, plazer handia izan da niretzat Urtxintxa. Badakit dendaren falta sumatuko dudala, saldu eta erosteko baino gehiago da-eta.

**Ez dituzte jostailu larregi?**  
Bai, baina errubera horretan gaude denok. Denok dugu behar duguna baino gehiago.

**Jostailu bat erostean, zer hartu behar dugu kontuan?**  
Umea zegaz jolasten den. Joera nabaria ekarri ohi dute, baina gauza berriak proba ditzaten saiatu beharko genuke. Nik neuk ez nuen gauza askorik lortu, baina (barrez).

### LAUHORTZA

**ARITZ MALDONADO ZABALA**

Behargina



#### Fikzioak (I)

Nik ez dut aititerik eduki; aitona eta abuelito ziren gurean. Bigarrena, argazkietan baino ez dut ezagutu. Lehenarekin, ostera, ilargiaren hizkuntza ikasi nuen, besteak beste. Eta zein da, ba, ilargiaren hizkuntza?

Begiak ixten baditut, sukaldetan jesarrita ikusi dezaket aitona, mahaiburu. Plateraren alboan ditu ogi zatia eta ardo pixka bat duen edalontzia. Koadrozko oihal berdea, ogi-apurrez bete. Kontatu zigun behin, letagin handiko autoestopista bat hartu zuela; sagardo botilak konpartitu zituzten, eta sekretuak gorde zizkieten elkarri. Erleen itzultzaile gisa aritu ohi zen, guri hauen solasaldien berri emateko. Eta lo zegoela, indioenak eta bakeroenak abesten zizkigun.

Nik isilik entzuten nion. “Ikasiko duzu zuk ere ilargiaren hizkuntza”.

Aitona korrika zihoan amildegira, iskin egin eta itzultzen zen, suaren gainetik jauzi egiteko.

Ilargiaren hizkuntza bihotzarena zela uste nuen.

Sasoi batean, ilargiaren konpainia baino ez nuen izan, eta orduan ikasi nuen bere hizkuntza. Saiatuz, lortu nuen. Behin, ordu luzeetako berriketaren ondoren, ilargiak aitortu zidan mundua guk eraikitzen dugun bezalakoa dela. Eta horrela oihartu nintzen, ilargiarena adimenaren hizkuntza zela, ez bihotzarena.

Erleei ezer ulertu gabe jarraitzen dut, ez naiz inoiz ondo moldatu beraiekin. Sua irakurtzeko abilezia, ordea, nahikoa garatu dut urteekin. Eta erraien berba ere, ulertu dut urteekin.

Maiz, ilargiaz maitemintzen naiz.



# ALBERDI

HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722